

Unibasqen kanpo-ebaluazioko batzordearen txostena

2014ko Apirila

| | |
|--|----|
| 1. Laburpen exekutiboa | 3 |
| 2. Akronimoak | 4 |
| 3. Sarrera | 5 |
| 3.1 Aurrekariak eta ebaluazio-prozesuaren deskribapena | 5 |
| 3.2 Euskadiko Goi-mailako Hezkuntza Sistema | 5 |
| 3.3 Unibasqen zeregin nagusiak..... | 8 |
| 3.4 Unibasqen egitura | 10 |
| 3.5 Unibasq eta ENQA | 10 |
| 3.6 Ebaluazio-prozesua..... | 11 |
| 3.7 Ebaluazioaren testuinguru nazionala | 12 |
| 4. Ondorioak | 13 |
| 4.1 ENQAren 1. irizpidea. | 13 |
| 4.2 ENQAren 2. irizpidea / ESG 3.2: Maila ofiziala..... | 28 |
| 4.3 ENQAren 3. irizpidea / ESG 3.4: Baliabideak..... | 29 |
| 4.4 ENQAren 4. irizpidea / ESG 3.5: Misioaren deklarazioa | 31 |
| 4.5 ENQAren 5. irizpidea / ESG 3.6: Independentzia | 32 |
| 4.6 ENQAren 6. irizpidea / ESG 3.7: Agentziek erabilitako kalitatearen barne-bermeko irizpideak eta prozesuak..... | 34 |
| 4.7 ENQAren 7. irizpidea / ESG 3.8: Erantzukizun-prozedurak..... | 36 |
| 4.8 ENQAren 8. irizpidea: Iritzien koherentzia, apelazio-sistema eta ENQAren helburuei egindako ekarpena | 38 |
| 5. Ondorioa eta garapena | 39 |
| 6. Gomendioak..... | 39 |
| 7. Eranskinak..... | 40 |
| 7.1. Eranskina – Bisita agenda | 40 |
| 7.2. Eranskina – Frogagiriak | 42 |

1. Laburpen exekutiboa

Txosten honek Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ENQAKo kidea izateko irizpideen betetze-maila aztertzen du. Txostena ENQAK koordinatutako A motako pareen arteko ebaluazioan oinarritzen da. Txosten honetan oinarrituz, Unibasqek ENQAKo eskubide osoko kide izatea eskatuko du lehen aldiz. Une honetan ez da ez ENQAKo kide ezta afiliatua ere. ENQAKo kidea izateko irizpideen betetze-maila ebaluatzeko ebaluazio batzordearen bisita 2014ko otsailaren 12-14 arteko egunetan gertatu zen.

Aztertutako ebidentzia dokumentalak eta ahozkoak kontuan hartuta, ebaluazio batzordea pozik dago Unibasqek ENQAKo kidea izateko irizpideak neurri handi batean betetzen dituelako. Batzordeak agentziak ENQAKo kidea izateko 2,4,5, eta 7. irizpideak oso-osorik betetzen dituela eta 1, 3, 6 eta 8. irizpideak neurri handi batean betetzen dituela ikusi du.

Unibasq agentzia dinamikoa da, azken urteetan ENQAKo kidea izateko irizpideak betetzeko bere politikak eta prozedurak garatu dituena. Agentziak kalitatea bermatzeko jarduera kopuru handia egiten du, bai irakasle eta titulazio bakoitzaren mailatik unibertsitate zentru edo erakunde osoen mailara. Ebaluazio programa batzuetan beste kalitatea bermatzeko erakunde nazionalen eta regionalen arteko elkarkidetza dago.

Unibasqek Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskadin dauden hiru unibertsitateekin harreman sendoa garatu du eta bere jardueretan erakunde hauen babes handia lortu du.

Batzordeak Unibasq ENQAKo eskubide osoko kide izatea lortzeko interes-talde guztien babes handia nabaritu du. Izan ere, espaniako legediak ENQAKo eskubide osoko kide izatea beharrezko baldintza ezartzen du agentziek ardura osoa izateko zenbait ebaluazio programetan, hala nola, titulazioen egiaztapenean eta titulazioen egiaztapena berritzeko programan.

2. Akronimoak

| | |
|---------------|--|
| ACSUG | Axencia para a Calidade do Sistema Universitario de Galicia – Galiziako Unibertsitate Sistemarako Kalitate Agentzia |
| ANECA | Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación – Kalitatea Ebaluatu eta Egiatzatzeko Estatuko Agentzia |
| AQU Catalunya | Agència per a la Qualitat del Sistema Universitari de Catalunya-Catalunyako Unibertsitate Sistemarako Kalitate Agentzia |
| BOE | Boletín Oficial del Estado - Estatuko Aldizkari Ofiziala |
| CNEAI | Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora – Ikerketa Jarduera Ebaluatzeko Estatu Batzordea |
| CURSA | Comisión Universitaria de Regulación del Seguimiento y la Acreditación - Jarraipena eta Egiatzapena Arautzeko Unibertsitate Batzordea |
| EHAA | Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria |
| EHU | Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea |
| ENQA | European Association for Quality Assurance in Higher Education – Goimailako Hezkuntzaren Kalitatearen Bermerako Europako Elkarteak |
| EQAR | European Quality Assurance Register for Higher Education – Goimailako Hezkuntzaren Kalitatearen Bermerako Europako Erregistroa |
| ESG | European Standards and Guidelines (for Quality Assurance in the European Higher Education Area) - Goi-mailako Hezkuntzaren Kalitatearen Kanpo Bermerako Europako Irizpide eta Jarraibideak |
| ETE | Enpresa Txikiak eta Ertainak |
| GHEE | Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua |
| KBBS | Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema |
| LOPD | Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa |
| LOU | Unibertsitate Lege Organikoa |
| LOMLOU | Unibertsitate Lege Organikoa aldatzen duen legea |
| PDCA | Plan-Do-Check-Act kudeaketa metodoa |
| REACU | Red Española de Agencias de Calidad Universitaria – Unibertsitate Kalitatearen Agentzien Espainako Sarea |
| RUCT | Registro de Universidades, Centros y Títulos - Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluen Erregistroa |
| SIIU | Sistema Integrado de Información Universitaria – Unibertsitateko Informazioa Sistema Integratua |

3. Sarrera

Hau da 2014ko otsailaren 12tik 14ra Unibasqen ebaluazioaren txostena, bere helburua agentziak European Association for Quality Assurance in Higher Education – Goi mailako Hezkuntzaren Kalitatearen Bermerako Europako Elkarteko (ENQA) eskubide osoko kide izateko irizpideak betetzen dituen aztertzeko.

3.1 Aurrekariak eta ebaluazio-prozesuaren deskribapena

ENQAko estatutuek kide diren agentzia guztiek kide izateko irizpideak betetzen dituztela egiaztatzeko, gutxienez bost urtean behin, nahitaezko kanpo-berrikuspen zikliko bat igaro behar dutela ezartzen dute.

2004ko azaroan, ENQAko Batzar Orokorrak Goi-mailako Hezkuntzaren Kalitatearen Kanpo Bermerako Europako Irizpide eta Jarraibideen (ESG) hirugarren atala kide izateko irizpideetara gehitu behar zela erabaki zuen, lehen bere araudian orain bere estatutuen barruan. ESG neurri handi batean betetzea ENQAko eskubide osoko kide izateko irizpide nagusi bilakatu zen. Ondoren 2005ean ESG Boloniaren prozesuari buruzko Bergen-en egin zen ministroen bileran onartu ziren. ESG-en hirugarren atalak kalitatea bermatzeko eta egiaztatzeko agentzien kanpo ebaluazio periodikoa garatzen du.

Unibasqen kanpo ebaluazioa *Goi mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan kalitate agentzien kanpo ebaluaziorako irizpideetan* deskribatutako prozesuarekin eta Erreferentzia terminoetan ezarritako kronogramarekin bat egin zen.

Unibasqen kanpo ebaluaziorako ebaluazio batzordea hurrengo kideek osatu zuten:

- Thierry Malan, Goi mailako Hezkuntzari buruzko aholkularia, Nazioko Ikerkuntza eta Hezkuntza Administrazioarako Ikuskatzaile ohia, Frantzia (Batzordeburua)
- Pieter-Jan Van de Velde, Kalitatea bermatzeko teknikaria, Flemish Higher Education Council (VLUHR), Belgika (Idazkaria)
- Maria João Machado Pires da Rosa, Irakasle atxikia, Aveiro-ko Unibertsitatea –Ekonomia, Kudeaketa eta Ingeniaritza Industrial Sailean (DEGEI), Ikertzailea CIPES-en - Centre for Research in Higher Education Policies, Portugal
- Gerard Wrixon, University College-ko errektore ohia, Cork, Irlanda
- Cristina Pastor Valcárcel, Zientzia Aktuarial eta Finantzieroen ikaslea, Miguel Hernández Unibertsitatea, Elche, Espainia

Unibasqek autoebaluazio txostena idatzi zuen, bertan batzordeak bere ondorioetara heltzeko ebidentzien zati handi bat eskura jarri zuelarik. Batzordeak autoebaluazioa egiaztatzeko eta geldi zitezkeen zalantzak argitzeko bisita egin zuen. Ebaluazio batzordeak ebaluazioan zehar kontsultatu nahi izan duen dokumentu eta pertsonak izan ditu bere eskura. Era berean Unibasqen kide eta pertsonala eskertu nahi ditu bere harrera eta bisitaren antolakuntza egokiagatik, baita elkarrizketetan partehartzaile guztiak bere esperientzia konpartitzeagatik.

3.2 Euskadiko Goi-mailako Hezkuntza Sistema

Espainiako autonomia-erkidegoetako bat dugu Euskal Autonomia Erkidegoa, hiru probintziak osatzen dute eta Espainiaren iparrean dago. Hizkuntza- eta kultura-nortasun nabaria eta sendoa du, eta gaur egun 2.180.000 biztanle inguru ditu. Ikasleek beren ikasketak euskaraz zein gaztelaniaz egin ditzakete, eta sistemak gaur egun ingelesez eta beste hizkuntza batzuetan egindako ikasketak ere eskaintzen ditu.

Goi-mailako hiru erakundek osatzen dute Euskal Unibertsitate Sistema, eta bakoitzak zenbait campus ditu, eta betiere bere egoitza nagusia euskal lurraldean du. Gainera, titulartasun mota desberdina du hiru euskal unibertsitateetako bakoitzak:

- Euskal Herriko Unibertsitatea - EHU da Euskadiko unibertsitate publiko bakarra, unibertsitateko "sistema" gisa funtzionatzen du eta hiru campus dauzka Euskadiko hiru probintzietan: Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba.
- Deustuko Unibertsitatea irabazi-asmorik gabeko Goi-mailako Hezkuntzako Erakunde bat da, Jesusen Elkarteara (jesuitak). Bi campus ditu Euskadin, bata Bilbon eta bestea Donostian, eta Madrilen egoitza bat ere badu (Deusto Business School).
- Mondragon Unibertsitatea irabazi-asmorik gabeko Goi-mailako Hezkuntzako Erakunde bat da jabetza kooperatiboko erakunde gisa eratuakoa eta 1997an sortutakoa lehendik bazeuden zenbait hezkuntza- eta prestakuntza-instituturen bat-egiteari esker.

2007. urtean Espainiako Unibertsitate Sistemak Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren (GHEE) ezaugarri erkideak bereganatzeko trantsizioa egin behar izan zuenetik, etengabeko eraldaketa-prozesuan murgilduta egon da unibertsitate- ikasketen egitura Espainian. Sistema berrian GHEE-rekin bat egiten duen horretan, orain espainako unibertsitateek beste lurralde batzuetan eskaintzen diren hiru ziklo berdinak eskaintzen dituzte: Graduak, Masterrak eta Doktoregoak. Euskal Unibertsitate Sistemaren eskaintzen diren programek alor akademiko, maila eta programa mota guztiak biltzen dituzte.

Euskal unibertsitateek ikasketa desberdinen bi programa mota eskaintzen dituzte:

- Programa "ofizialak" deitutakoak, hau da, aurreko egiaztapena edo ziurtapena atzean utzi eta eskaintzen diren autonomia-erkidegoan "baimen" formala jaso dutenak; egiaztatutako programen erregistro nazionalen biltzen dira programa horiek eta "Espainia osoan" administrazio-balioa duten tituluak ematen dituzte; unibertsitate-programa gehienak kategoria horretakoak dira. Garrantzitsua da kontuan izatea egiaztapen-prozedura berria ez zela aldi berean sartu programa- maila guztietan: doktorego-programen egiaztapena hastear baino ez dago, eta oraindik bada programa "zaharren" kopuru handi bat Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren graduei dagokien hiru mailako egiturari egokitu ez zaiona, eta, horrenbestez, oraindik ere aurreko legeriaren arabera arautzen dira; urte gutxiren buruan laster amaitu beharreko programak dira, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruari dagokion egiturearekin uztartzen diren batzuk haien orde zarrira eta ziurtapen-prozesua atzean utzita;
- Unibertsitateak berak emandako diploma edo ziurtagiria dakarten programak, eta, horrenbestez, "berezko tituluak" deitzen direnak (betiere Goi-mailako Hezkuntzaren erantzukizunaren pean, eta ez estatuarenean); zenbaitetan, hartzaileak tokian tokikoak izaten dira nabarmenki, eta beste batzuetan, aldiz, estatu osoan edo nazioartean dute prestigioa irabazia; Master mailako tituluak izaten dira, batez ere.

Lehenengo taulan Euskadiko unibertsitateetan eskaintzen diren titulazioei buruzko informazioa eskaintzen da (egiaztapen-prozesua gaingaituta dutenei buruzkoak).

1. taula

| TITULUEN KOPURUA | GRADUA | MASTERRA | DOKTOREGOA | GUZTIRA |
|---------------------------------|------------|------------|------------|------------|
| UPV/EHU | 69 | 106 | 81 | 256 |
| Deustuko Unibertsitatea | 19 | 31 | 10 | 60 |
| Mondragon Unibertsitatea | 15 | 13 | 3 | 31 |
| GUZTIRA | 104 | 140 | 84 | 347 |

2011-2012 ikasturtean 59.000 ikasle inguru matrikulatu ziren euskal unibertsitateetan (haien artean 33.523 ikasle ikasketa ofizialen programetan); unibertsitateko ikasleen % 79,4k unibertsitate publikoan eman zuen izena, hau da, EHU_n.

Espainiako langile akademiko gehienak funtzionarioak dira, lanaldi osoan lan egiten duten irakasleak/ikertzaileak. Unibertsitateek lanean dituzte, halaber, lanaldi osoko edo partzialeko lan-erregimenean aritzen diren unibertsitate-irakasleak. Horrelako langileak aldeztu aurretik ebaluatu eta egiaztatu behar ditu ANECAk (Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentzia) edo dagokion eskualde-agentziak; Euskadiri gagozkiola, Unibasqen zereginen artean dago irakasle ez-numerarioak ebaluatzea eta egiaztatzea. Euskadiko unibertsitate-sisteman, 2011-2012 ikasturtean, 5.373 irakasle eta ikertzaile izan ziren, eta haietatik % 82k EHU_n lan egiten zuen.

Espainiako unibertsitate-politika arautzen duen lege-esparruak 1978ko Espainiako Konstituzioan du bere jatorria; hori horrela, estatu espainolari dagokio Konstituzioaren 27. artikulua —unibertsitateen autonomia onesten duena— betetzeko oinarritzko erregulazioa ezartzea. 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak (LOU) -2007ko apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak (LOMLOU) aldatutakoak— estatu osorako oinarritzko arauak ezartzen ditu, eta unibertsitateei, estatuko gobernuaren eta autonomia- erkidegoetako gobernuak dagozkien ahalmen eta eskumenak xedatzen ditu.

Euskadiko Autonomia Estatutuarekin batera (1979), legeriak xedatzen du unibertsitate-politikak autonomia-erkidego bakoitzaren eskumena direla, eta, horrenbestez, autonomia-erkidegoek dute ikasketa-programak sortu, aldatu eta ebazteko ardura. Euskadiko unibertsitate-sistemaren kasuan, 2004ko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen bidez finkatu zen sistemaren ahalmenen garapena. Lege horretan definitzen denez, Euskadin egoitza duten unibertsitateen multzoa da Euskal Unibertsitate Sistema, eta haren helburuak eta azpiko printzipioak zehazten dira; era berean, lurraldeko unibertsitate-jardueraz arduratzen da, irakasle-lana zein ikertzaile-lana biltzen duen jardueraz; 3/2004 Legean definitzen denez, ikasleen kidegoa, irakasle eta ikertzaileak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak biltzen dituen multzoa da unibertsitate- komunitatea. Bestalde, unibertsitate publikoen zuzendaritza- eta ordezkari- organoak, unibertsitateen araubide juridikoa eta zuzendaritza akademiko eta korporatiboa eta unibertsitate-kalitatearen bermea aipatzen dira, alderdi ekonomiko jakin batzuk eta unibertsitate publikoa finantzatzeko sistema arautzen dira, eta Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia sortzen da.

Unibasqen barne egitura eta zeregin orokorrak euskal araudiak ezartzen ditu nagusiki. Estatu espainarraren egitura mantenduz, bere lurralde autonomo sendoekin, nazioarteko kalitate bermerako sistema ANECA - Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak eta 10 agentzia autonomikoen, Unibasq bezalakoek, osatzen dute.

3.3 Unibasqen zeregin nagusiak

Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia zuzenbide pribatuko erakunde publiko bat da (administrazio- eta finantza-malgutasi handiagoa ematen dio horrek), unibertsitateen arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren sailari atxikia. Unibasqek horrela deskribatzen du bere misioa bere autoebaluazio txostenean:

Kalitatearen sustapenaren bidez Euskal Unibertsitate Sistema hobetzen laguntzea da Unibasq-en zeregina, betiere goi-mailako hezkuntzan inplikaturako interes-talde guztien mesedetan, Agentziaren Plan Estrategikoan adierazten denez, Agentziaren beraren webgunean argitaratutakoan. Euskal Unibertsitate Sistema ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzea du helburua, Espainiako eta nazioarteko Irizpideren arabera. Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko ebaluazio, egiaztapen eta ziurtapenak ere egin ditzake, atzerriko erakundeekin aldez aurretik hitzartutako erabakien bidez.

Horretarako, honelako jarduerak egiten ditu Unibasqek:

- Euskal Unibertsitate Sistemaren kalitatea hobetzeko lagungarri direnak, ikaskuntza edo irakaskuntzari, ikerketari eta kudeaketari dagokienez;*
- Informazioa eta irizpideak ematea administrazio publikoei eta unibertsitateei erabakiak hartzeko prozesuetan;*
- Gizarteari informazioa eskaintzea Euskal Unibertsitate Sistemaren lanari eta emaitzei buruz.*

Bere estatutuen arabera, honako jarduera hauetaz arduratzen da Unibasq:

- a) Unibertsitate-irakaskuntza ebaluatzea;*
- b) Erakundeak ebaluatzea eta ziurtapena ematea;*
- c) Europako kalitate-esparruan irakaskuntzak ziurtatzea;*
- d) Irakasleak eta ikertzaileak ebaluatzea eta ziurtapenak ematea;*
- e) Irakasleen eta ikertzaileen banakako ikerketa-merezimenduak ebaluatzea ordainsari osagarriak esleitzeko eta dagozkien ziurtapenak emateko lege ezarritako eskumeneren arabera, eta Eusko Jaurlaritzak ikerketa-jarduerarako ezarritako xedeak bete diren aztertzea;*
- f) Ikerketa-jarduerak ebaluatzea;*
- g) Azterlanak egitea ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen-eredua hobetze eta berritze aldera;*
- h) Ebaluazioa sustatzea eta kalitate-irizpideak Europako eta nazioarteko esparruan erkatzea sustatzea;*
- i) Euskal unibertsitate-sistemaren kalitateari buruzko gaietan aholku ematea haren eginkizunen esparruan;*
- j) Unibertsitateen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak zehaztuko dizkion helburuekin eta jarduera-esparruekin lotutako beste edozein jarduera.*

Era berean, Unibasqek, betiere Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren testuinguruan, Goi-mailako Hezkuntzako Erakundearen ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen-jarduerak egin ahalko ditu Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, beste agentzia, unibertsitate edo hezkuntza-agintariekin aldez aurretik sinatutako akordio bidez. Era berean, beste jarduera eta agentzia batzuen ebaluazio-lanetan parte hartu ahalko du Agentziak zientzia, teknologia eta berrikuntzako euskal sistemaren barruan, eta, eginkizun horiek bete ahalko ditu, halaber, betiere Europako Ikerketa Esparruaren testuinguruan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo, beste agentzia, unibertsitate edo hezkuntza-agintariekin aldez aurretik sinatutako akordio bidez. Azkenik, lankidetzak, kolaborazioa eta ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen- prozeduren onspena bideratuko duten harremanak ere ezarri ahalko ditu Agentziak, eta informazioa ere trukatu ahalko du goi-mailako

hezkuntzak kalitatea, egiaztapena eta ziurtapena ebaluatzeaz arduratzen diren eskualdeko, estatu osoko eta nazioarteko beste agentziekin.

Orain arte Unibasqek hasitako ebaluazio jarduerak bi motatan bereiz daitezke nagusiki: Agentziak berak garatutako jarduerak, eta kalitatea bermatzeko Espainiako beste agentzia batzuekin batera garatutako jarduerak.

A) Unibasq Agentziak Berak Garatutako Jarduerak

Ikasketa-programen ebaluazioa:

- Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruaren tituluen egituraren arabera garatutako euskal unibertsitateen ikasketa-programa berri guztien alde aurreko ebaluazioa ("baimena" deitutakoa); Eusko Jaurlaritzak programa "ofizial" berri bat onartu baino lehen, beharrezkoa da Unibasqen ebaluazio positiboa izatea, eta tokian tokiko baldintza horretaz gain, bada estatu osorako beste baldintza bat, eta haren arabera alde aurreko ebaluazio positibo bat lortu behar da nahitaez ("egiaztapena" deitutakoa) edozein programa berri "ofizial" bihur dadin, adibidez, Espainia osoan baliagarria izateko eta Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluen Erregistroan (RUCT) sartzeko. Unibasqek horrelako ebaluazioak 2006tik egiten ditu.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren edozein ikasketa-programa "ofizialen" martxaren jarraipena. Ikasketa-programak RUCT erregistroan sartutakoan, eta martxan jarritakoan, baliozkotutako ikasketa-planean ezarritako proiektua betetzen dutela gainbegiratuko du Unibasqek. Jarraipen prozedura hau 2010ean ezarri zen.
- Ikasketa ofizialen programa gisa duten aintzatespena "berritzeko" programak ondoren ebaluatu eta egiaztatzea; pauso hori berregiaztapen baten baliokidea da, hasierako egiaztapenari "ziurtapen" esaten bazaio ere eta ez hainbeste egiaztapen (aldez aurrekoa). Esperientzia piloto egitea aurreikusten da 2014n.
- Berezko tituluen kanpo-ebaluazioa, ofizialtzat hartzen ez diren EHUko ikasketa-programa berrietarako; horrelako programen bidez, unibertsitateak berak emandako diploma lortzen da, eta ez estatuak emandakoa. Ebaluazio programa hau boluntarioa da eta 2007n hasi zen.

Erakundeen ebaluazioa:

- Unibertsitate-arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzaren sailak eta Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate bakoitzak sinatutako akordioak (kontratu-programak) betetzeari buruzko txostenak, Euskadirako Unibertsitate Planean Gobernuak ezarritako helburuei jarraiki. Unibasqek txosten hauek 2008tik egiten ditu urtero.

Langile akademikoen ebaluazioa haien irakaskuntza- eta ikerketa-lanaren arabera:

- Irakasle eta ikertzaileen egiaztapena, lan-kontratudun lanpostua eskuratzeko aukera izan dezaten unibertsitate publikoetan, baita irakasle-doktore lanpostuak ere Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate pribatuetan. Ebaluazio programa hau 2008tik martxan dago eta azken urteotan pertsonalaren denbora-dedikazio handia suposatu du.
- EHUko irakasle eta ikertzaileen ebaluazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak horretarako (jardueraren ebaluazioa) ezarritako ordainsari-osagarriak esleitzeko. Ebaluazio programa hau 2007tik 2010era arte garatu zen. Orditik ez dira deialdi berririk egin.
- EHUko lan-arloko irakasle eta ikertzaileen ebaluazioa "seiurtekoak" onesteko, hau da, ikerketa jardueraren seiurtekoak baliozkotzeko. Ebaluazio programa hau 2010ean hasi zen.

b) Beste Agentzia Batzuekin Lankidetzan Egindako Jarduerak: Erakundeen Ebaluazioa

Erakundeen ebaluazioa:

- DOCENTIA - Unibertsitateei laguntza emateko programa, irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko prozedurak diseinatzeko. ANECA agentzia nazionalarekin eta Espainian dauden kalitatea bermatzeko eskualde-agentzia guztiekin batera diseinatu zen DOCENTIA.
- AUDIT - Euskal Unibertsitate Sistemaren unibertsitate-ikastegien kalitatearen barne-bermeko sistemak ebaluatzeko eta ziurtatzeko programa. ANECAk, Kataluniako eta Galiziako kalitatea bermatzeko eskualde-agentziekin batera (AQU eta ACSUG, hurrenez hurren) diseinatu zuen AUDIT programa, eta 2007an bildu zen programara Unibasq.

3.4 Unibasqen egitura

Gobernuko Kontseilua eta zuzendaria dira Agentziaren zuzendaritza-organoak. Unibasqi buruzko 13/2012 Legean ezartzen da Gobernu Kontseiluaren osaera. Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak biltzeaz gain, euskal unibertsitateetako hiru errektoreak, ikasle bat (Euskadiko unibertsitateko ikasleen partaidetzarako organo espezifikoak aukeratu behar du), aitortutako prestigio akademikoa duen beste pertsona bat eta Euskal Unibertsitate Kontseiluak izendatutako sei pertsona (haietatik hiruk, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo lan egin behar dute, zehatzago, haietatik batek Espainiatik kanpo lan egin behar du, eta beste biak, unibertsitate-komunitatetik kanpo).

Gobernu Kontseilua gai estrategiko eta estrukturaletan agentzia zuzentzeaz arduratzen da.

Zuzendaria agentziaren zuzendaritza eta ordezkartza, Aholku Batzordeko kideak izendatzeaz eta kargutik kentzeaz, baita, Aholku Batzordeak proposatuta, ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzeaz eta kargutik kentzeaz arduratzen da.

Aholku Batzordeak eta Ebaluazio Batzordeek osatzen dituzte Agentziaren organo teknikoak.

Aholku Batzordea osatzen dute Agentziaren zuzendariak (bera da buru) eta unibertsitatearen eta ebaluazioaren esparruan ospe handia duten hamar pertsonak, agentziaren zuzendariak izendatutakoak. Kide horietako gehienek euskal unibertsitate sistematik kanpokoak izan behar dute, eta gutxienez ikasle batek eta kideetako hiruk Espainiatik kanpo bete behar dituzte beren zereginak. Batzordearen osaeraren eta haren kideen esperientziaren bidez, Agentziaren jardueren kalitatea eta sinesgarritasuna bermatzen du Aholku Batzordeak, Gobernu Kontseiluari eta agentziaren zuzendariari eginkizunak betetzeko aholkuak emanez, Agentziak erabili beharreko ebaluazio-irizpideak eta -protokoloak garatuz eta onartuz, ebaluazio-batzordeetako kideak izendatu eta, hala beharko balu, kargutik kentzeko proposamenak aurkeztuz, eta ebaluazio-, egiaztatze- eta ziurtatze-prozesuak inpartzialak eta objektiboak izan daitezen zainduz.

Organo zientifiko-teknikoak dira Ebaluazio Batzordeak, eta organo horien bidez garatzen ditu Agentziak bere ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen-eginkizunak. Honako hauek osatzen dute Ebaluazio Batzorde bakoitza: Ospe handiko akademikoek (gehiengoa izan beharko dute euskal unibertsitate-sistematik kanpoko akademikoek), ebaluatu beharreko arloetako ikasle bat (ikasleen gaineko eragin zuzena duten programa eta jardueretan), eta posible denean ebaluatu beharreko arloetako ospe handiko profesionalak.

3.5 Unibasq eta ENQA

2009. urteaz geroztik, ENQAko eskubide osoko kide gisa onartua izatea lortzeko prestatzen ari izan da Agentzia, eta horretarako aldatu egin ditu, beharrezkoa

zenez, bere antolamendu-prozedura eta prozedura operatiboak, legerian beharrezkoak diren aldaketak sustatzeaz gain. Izan ere, Unibasqen sorrera eta erakundearen estatutuak arautzeaz arduratzen den Euskal Lege berria Agentzia ENQAren kide bihurtzea ahalbidetzeko helburu espezifikoarekin onartu zen, eta lege horrek, halaber, funtsezkotzat ezartzen du helburu hori, Agentziak epe laburrean lortu beharrekoa.

Prozesu horrek gogoeta sakona eragin du Goi-mailako Hezkuntzaren Kalitatea Bermatzeko Europako Irizpide eta Jarraibideen betetzearen inguruan, Agentziaren antolamenduan eta eragiketetan hobekuntzak sartzeko aukera bultzatzeaz gain.

Ebaluazio honetan zehar, batzordeak Unibasq interes-talde guztien babes handia ENQAko eskubide osoko kide izateko nabaritu du. Izan ere, espaniako legediak ENQAko eskubide osoko kide beharrezko baldintza ezartzen du agentziek ardura osoa izateko zenbait ebaluazio programetan, hala nola, titulazioen egiaztapenean eta titulazioen egiaztapena berritzeko programan.

3.6 Ebaluazio-prozesua

Batzordea 2013ko azaroan izendatu zen eta autoebaluazio txostena une berean jaso zuen. Bisita aurretik batzordeko kide bakoitzak autoebaluazio txostena eta bere eranskinak aztertu zituen eta bisita prestatzeko bileran bakoitzaren ondorioak aurkeztu ziren bisitaren lehenengo egunean.

Bisita 2014ko otsailaren 12tik 14ra gertatu zen Unibasqen egoitzan Gasteizen. Unibasqek bisita programa diseinatu zuen batzordeburu eta idazkariarekin batera. Bisita programak Gobernu Kontseiluko kideekiko, Eusko Jaurilaritzako ordezkariakiko, Unibaseko zuzendaria eta langileekiko, Aholku Batzordeko ordezkariakiko, hiru euskal unibertsitatetako ordezkariakiko, ikasleen ordezkariakiko eta Unibasqeko Ebaluazio batzordeetako ordezkariakiko elkarrizketak jaso zituen.

Autoebaluazio txostenak, bere eranskinak eta dokumentazio gehigarriak bisitan egindako elkarrizketen erreferentzia esparrua sortu zuten, bertan idatzizko dokumentazioari ahozko ebidentzia gehigarriak emanez.

Batzordeak berez gaztelaniaz edo euskaraz idatzita zeuden zenbait dokumentu aipagarri ingelesera itzultzea eskertzen du. Batzordeko kideetako bat gaztelania du ama-hizkuntza eta batzordeko beste kide batzuek gaztelania menperatzen dute ebaluazio protokoloak eta ebaluazio eta egiaztapen txostenak (Unibasqen web orrialdean eskura daudenak) aztertu ahal izateko moduan. Dokumentu hauetatik ateratako aurkikuntzak batzordeko barne-bileratan konpartitu ziren batzordeko kideen artean. Bisita bukatzean, batzordeak barne-bilera bat izan zuen ESG-en 2. eta 3. ataletako irizpideen Unibasqen betetze-mailari buruzko behin behineko ondorioak erabakitzeke. Batzordeko idazkariak txostenaren ziriborroa idatzi zuen batzordeko beste kideekin batera. 2014ko martxoaren 25ean txostenaren ziriborroa bidali zen Unibasqera egiaztatzeke, eta bi astetako epea eman zitzaion ENQAren estandarrei inguruan txostenari buruzko ekarpenak egiteke.

Bere ondorioei dagokienez, batzordeak Unibasqen irizpideen betetze-maila ebaluatu duela eta jarraibidetan zerrendatutako adierazle batzuei dagokienez Unibasqen praktika kontuan hartu duela azpimarratzea garrantzitsua dela uste du. Era berean zenbait gomendio egin ditu. Batzordearen asmoa planteamendu honek 2011ko uztailaren 1ean indarrean sartu zen ENQAko Batzarrak erabakitako agentzien kanpo ebaluaziorako politika berria islatzea da. Politika honek beste gauzen artean hurrengo ezartzen du, hobekuntza arloa ebaluazioen bigarren zikloan sendotu behar dela eta horrela agentzia garatzeko gomendio gehiago jaso behar duela ebaluazio lehenengo zikloan baino.

3.7 Ebaluazioaren testuinguru nazionala

Espanian kalitatea kanpo bermerako prozedurekin lotutako jarduerak ANECA - Kalitatea Ebaluatu eta Egiartzatzeko Estatuko Agentziaren eta araudi autonomikoez ezartzen duten ebaluazio organoen eskumenen barruan daude. Unibertsitate Lege Organikoaren aldaketak, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak (LOMLOU), ANECAk eta ebaluazio organo autonomikoez nazioarteko irizpideak erabiltzean lankidetzak eta elkar ezagutzeko mekanismoak ezarri behar dituztela ezartzen du.

Espainiako 17 autonomia erkidegoetatik hamarrek bere kalitatea bermatzeko agentzia ezarri dute. Agentzia hauek kalitatea kanpo bermerako arduradunak dira bere lurralde-eremuan. Espainiako legediak ENQAKo eskubide osoko kide izatea beharrezko baldintza dela ardurak osoa izateko zenbait ebaluazio programetan, adibidez, titulu ofizialen egiaztatapenean eta egiaztatapena berritzean. Lau agentzia autonomiko dira ENQAKo eskubide osoko kide: AAC-DEVA - Agencia Andaluza del Conocimiento, Dirección de Evaluación y Acreditación, Córdoba; ACSUCYL - Agencia para la Calidad del Sistema Universitario de Castilla y León, Valladolid; ACSUG - Axencia para a Calidade do Sistema Universitario de Galicia, Santiago de Compostela; y AQU Catalunya - Agència per a la Qualitat del Sistema Universitari de Catalunya, Barcelona. Lehen aipatu den moduan, Unibasqek ere ENQAKo eskubide osoko kide izateko bere konpromisoa erakutsi du.

Agentzia autonomikoen eta ANECAren arteko harremana araudi nazionalak eta autonomikoak ezartzen dute. ANECA eta agentzia autonomikoez REACU Unibertsitate Kalitatearen Agentzien Espainiako Sarearen esparruan lan egiten dute elkarrekin. REACUren kide aktiboa izan da Unibasq, sarea 2006. urtean martxan jarri zenetik.

4. Ondorioak

Honako ohar eta ondorio hauek autoebaluazio txostenean eta dokumentu osagarrien eta Unibasqen webgunearen azterketan oinarritzen dira, baita instalazioen bisitaldian egindako elkarrizketetan ere (programa 1. eranskinean jaso da). Ebaluazio batzordeak Unibasqi eskerrak eman nahi dizkio ikuspegi irekia erakutsi duelako, elkarrizketa guztietan komunikazio aske eta zintzoa ahalbidetu duen neurrian.

Ebaluazio batzordearen ustez, Unibasq agentzia dinamikoa da, eta Euskadiko goi-mailako hezkuntzako sisteman kalitatezko kultura garatzea du xedetzat. Azken urteetan Unibasqek babes handia jaso du hiru unibertsitateen eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Gainera, Unibasqek konfiantzazko giroa sortu du hiru unibertsitateekin.

Azken urteetan Unibasqek hainbat ebaluazio-sistema garatu ditu, sarritan kalitatea bermatzeaz arduratzen diren Espainiako beste zenbait erakunderekin elkarlanean. Ildo horretan, gero eta zeregin garrantzitsuagoa bete nahi du Euskadiko goi-mailako hezkuntzako sisteman eta Euskadiko gizartean oro har.

Unibasqek ENQAko eskubide osoko kide izan nahi du, eta batzordeak babes osoa eman nahi dio horretarako; gainera, konbentzitura gaude horrek aukera emango diola ez bakarrik erantzukizun osagarriak bere gain hartzeko, Espainiako legeriak ENQAko eskubide osoko kideen esku jartzen dituenak, baita goi-mailako hezkuntzaren europar esparruan zeregin aktiboago bat betetzeko ere.

4.1 ENQAren 1. irizpidea.

a. ESG 3.1 – 2. zatia: Kalitatea bermatzeko kanpo-prozesuak.

IRIZPIDEA:

Agentzien kalitatearen kanpo-bermeko prozeduretan Europako Irizpideen eta Jarraibideen 2. zatian deskribatutako kalitatearen kanpo-bermeko prozesuak daudela eta prozesu horiek duten eraqinkortasuna kontuan hartu behar da.

JARRAIBIDEAK:

2. zatian bildutako kalitatearen kanpo-bermeko irizpideek kalitatearen kanpo-bermeko prozesurako balio handiko oinarria eskaintzen dute. Irizpide horiek 90eko hamarkadaren hasieratik aurrera kalitatearen kanpo-bermea garatzearen bidez Europan lortutako jardunbide eta esperientzia onenak islatzen dituzte. Beraz, oso garrantzitsua da irizpide horiek kalitatearen kanpo-bermeko agentziek goi-mailako erakundeetan garatutako prozesuetan integratzea.

Kalitatearen kanpo-bermeko irizpideek kalitatearen kanpo-bermeko agentzien irizpideekin batera goi-mailako erakundeen kalitatearen kanpo-bermeko oinarria izan behar dute, profesionala eta sinesgarria.

Hurrengo ataletan, ESGren 2. zatiaren arauak nola bete azalduko dugu. Arau horiek betetzea garrantzitsua da, baina soilik 3.1 araua oro har betetzeari dagokionez.

4.1.1 - ESG 2.1. Kalitatea barne-bermeko prozedurak erabiltzea.

IRIZPIDEA:

Kalitatearen kanpo-bermeko prozeduretan Europako Irizpideen eta Jarraibideen 1. zatian deskribatutako kalitatearen barne-bermeko prozesuen eraginkortasuna kontuan hartu behar da.

JARRAIBIDEAK:

1. zatian bildutako kalitatearen barne-bermeko irizpideek kalitatearen kanpo-bermeko prozesurako balio handiko oinarria eskaintzen dute. Garrantzitsua da erakundeen barne-politikak eta -prozedurak arreta handiz ebaluatzea kanpo-prozedurak garatzerakoan, betiere irizpideen betetze-maila zehazteko. Hezkuntza-erakundeak beren barne-bermeko prozesuen eraginkortasuna frogatzeko gai badira eta prozesu horiek kalitatea eta irizpideak modu egokian ziurtatzen badituzte, kanpo-prozesuak intentsitate baxuagokoak izan daitezke.

Batzordearen oharrak.

Unibasqen egungo jarduerak zerikusia dute, batik bat, ikasketa-programen onarpenarekin eta jarraipenarekin, langile akademikoen irakaskuntza-jardueraren kalitatea ebaluatzeko borondatezko programak lantzearekin (DOCENTIA), barne-kalitatea ziurtatzearekin (AUDIT) eta akreditazio- eta ebaluazio-langileak hornitzearekin. Orain artean erabilitako prozedurek ez dituzte beti aintzat hartu ESGren 1. zatiaren betekizunak. Ebaluatzeko borondatezko programetan ebaluatu dira alderdi batzuk. Egiaztapena berritzeko esparruak esplizituki hartzen ditu kontuan 1. zatiko elementuak.

Hurrengo paragrafoetan batzordeak deskribatuko du Unibasqek kalitatea bermatzeko erabilitako kanpo-prozedurek zenbateraino ebaluatzen duten goi-mailako hezkuntzako zentroyen kalitatea bermatzeko barne-prozesuen efikazia, ESGren 1. zatian deskribatutako arauetara dagokienez.

ESG 1.1 Kalitatea bermatzeko politika eta prozedurak.

Unibasqek prozedura egokiak jartzen ditu abian, zentroek kalitatea bermatzeko politika eta prozedurak martxan jarri ote dituzten egiaztatzeko. Hori kontuan hartzen da programa-mailako nahitaezko prozeduretan (aldez aurreko egiaztapena, jarraipena eta egiaztapena berritzea). Gainera, AUDIT borondatezko ebaluazioko programak euskal unibertsitateetako zentro eta fakultateei laguntzen die kalitatea bermatzeko barne-sistema seguruak garatzeko lanean.

ESG 1.2 Programa eta tituluen onarpena, kontrola eta aldi behingo berrikuspena.

Espainiako unibertsitate-sisteman bi programa mota daude: ikasketa-programa ofizialak, Espainiako Gobernuak onartzen dituenak, eta "berezko tituluak" edo programa propioak, goi-mailako hezkuntzako erakundearen erantzukizunpean eskaintzen direnak.

Ikasketa-programa ofizialei dagokienez, kalitatea bermatzeko kanpo-prozesuen sistema zabala dago abian, programen onarpenerako, jarraipenerako eta aldi behingo berrikuspenerako. Programa berri bakoitzaren hasieran, Unibasqek aldez aurreko akreditazioa egin behar du, eta ANECAk aldez aurreko ebaluazioa, hurrenez hurren. Programa abian jarri eta berehala, urteko jarraipen-prozedura aktibatzen da, eta haren egiaztapena 4 urtean behin berritu behar da masterraren kasuan, eta 6 urtean behin gradu eta doktoregoen kasuan. Egiaztapena berritzeko sistema 2014an hasiko da indarrean.

"Berezko tituluen" kasuan, dagokion erakundeak bere gain hartu behar du

erantzukizuna. Esaterako, euskal unibertsitate publikoaren (UPV-EHU) berezko tituluei aldeztirik akreditatzeko borondatezko prozedura ezartzen zaie, Unibasqen eskutik.

Bestetik, programa eta sarien onarpena, jarraipena eta aldi behingo berrikuspena funtsezkoa da AUDIT borondatezko ebaluazio-programan. Hiru euskal unibertsitateetako ia unibertsitate-zentro guztiek parte hartzen dute AUDIT programan.

ESG 1.3. Ikasleen ebaluazioa.

Ikasleak ebaluatzeko, argitaratutako hainbat irizpide, erregelamendu eta prozedura aplikatu behar dira, koherentziaz aplikatu ere. Ikasleen ebaluazioa Unibasqen ebaluazio-sistemetakoa batzuetan hartu da aintzat. Batzorde honen ustez, garrantzitsua da ikasleak ebaluatzeko irizpide espezifiko bat ezarri izana "berezko tituluen" esparruan, eta 2014an abian jarriko den egiaztapena berritzeko ebaluazioaren esparruan. Aldeztirik aurreko akreditazio-prozesuan, ebaluatzaileek iradokizunak egin ditzakete ikasleen ebaluazioaren inguruan, baina ebaluazioan ez da horren inguruko galdera bat ere bildu. AUDIT eta DOCENTIA programetan, ebaluatzeko (azpi)irizpide bat da ikasleen ebaluazioa. Oro har, batzordeak uste du ebaluazio- politiken diseinua eta aplikazioa modu sistematikoagoan ebaluatu beharko lirakekeela ebaluazio-sistema guztietan.

ESG 1.4 Irakasleen kalitate-bermea.

Irakasleen kalitatea bermatzea funtsezkoa da Unibasqen lanean. Unibasqek ebaluatzen ditu bai irakasleak banan-banan, bai irakasle taldeen kalitatea eta irakasleen inguruko politika, zenbait ebaluazio-sistemaren bitartez.

Euskal unibertsitate batean kontratupeko edozein lanpostu eskatzeko, Unibasqen akreditazioa behar-beharrezkoa da. ANECA, berriz, funtzionario publikoen lanpostuak akreditatzeaz arduratzen da. Gainera, sei urtean behin, Unibasqek euskal unibertsitateetako irakasleen jarduna ebaluatzen du. Funtzionario publikoen lanpostuei dagokienez, CNEAI aldeztirik aurreko akreditazio eta ebaluazio nazionalaz arduratzen da. Kontratupeko langileei dagokienez, Unibasqek ebaluazio-deialdiak koordinatzen ditu, eta CNEAIko ebaluazio-batzordeei aurkezten dizkie jasotako eskaerak, ebalua ditzaten.

Gainera, Unibasqek DOCENTIA aplikatzen du, beste erakunde batzuekin batera, unibertsitateei laguntzeko beren irakasleen irakaskuntza-jardura ebaluatzeko prozedurak lantzen. Irakasleen kalitatearen bermea da AUDIT programaren beste giltzarrietako bat.

Unibasqek egindako aldeztirik aurreko akreditazio-prozedurak aukera-berdintasuna bermatu behar du langileen politikan, ANECAren aldeztirik aurreko ebaluazioarekiko bikoiztasunak saihesteko. Azken horrek zehatz-mehatz hartzen du aintzat irakasleen kalitatea. Egiaztapena berritzeko prozeduran, irakasleen kalitatearen bermea esplizituki hartzen da aintzat.

ESG 1.5 Ikaskuntza-baliabideak eta ikasleentzako laguntza.

Aldeztirik aurreko akreditazio-prozeduran, Unibasqek IKTen erabilera esplizituki ebaluatzen du, ANECAren aldeztirik aurreko ebaluazio-prozedurarekin bikoiztasunak saihesteko; azken horrek beste alderdi batzuk hartzen ditu kontuan. Halaber, ikasteko baliabideak eta ikasleei eskainitako laguntza egiaztapena berritzean ebaluatzen dira, AUDIT ebaluazio-programarekin bezala.

ESG 1.6 Informazio-sistemak.

Ikasketa-programari dagokienez, aldeztirik aurreko akreditazioak bideragarritasun ekonomikoari eta gizarte-premiei buruzko datuak ebaluatzen ditu, eta jarraipen-

prozedurak, berriz, ikasleen errendimenduarekin zerikusia duten datuen azterketa hartzen du aintzat. Egiatzapena berritzeko prozeduran, ebaluazioak kontuan hartzen du, batetik, ikasketa-programan bildutako informazioa, eta, bestetik, informazio horren jarraipena nola egiten den.

AUDIT programaren arabera, ikasketa-programak ongi kudeatzeko garrantziko informazioaren bilketa, azterketa eta erabilera ebaluazioaren irizpide esplizitua da. DOCENTIA programaren arabera, irakaskuntzaren kalitateari buruzko informazioa biltzen eta ebaluatzen da.

ESG 1.7 Informazio publikoa.

Informazio publikoa funtsezkoa da Unibasqen kalitatea bermatzeko kanpo-prozesuetan. Funtsezko irizpidea da aldez aurreko akreditazioa jarraitzeko prozeduran: erakundeek beren webguneetan bildu behar dituzte bai beren jarraipen txostenak, bai Unibasqek txosten horiei buruz egindako ebaluazioa, ikasleei beste hainbat datu emateaz gain. Informazio publikoari buruzko ikuspegi horren ondorioz, ikasleek hobekuntza handiak sumatu dituzte goi-mailako hezkuntzako erakundeek beren webguneetan eskainitako informazioaren kalitatean eta kantitatean.

Informazio publikoa ere AUDITen ebaluazio-irizpide bat da.

Gomendioak

- Unibasqek aztertu beharko luke ikasleen ebaluazioa modu sistematikoagoan egin ote daitekeen ebaluazio-programa guztietan.
- Halaber, Unibasqek nahitaezko ebaluazio-programak erabili beharko lituzke goi-mailako hezkuntzako erakundeetako kalitatea bermatzeko barne-sistemak ESGren I. zatia bete dezan.

Ondorioa

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 2.1 betetzen du neurri handi batean.

4.1.2 - ESG 2.2 Kalitatearen kanpo-bermeko kanpo-prozedurak garatzea

IRIZPIDEA:

Kalitatearen barne-prozesuen xede eta helburuak arduradun guztiek (baita goi-mailako hezkuntzako erakundeek ere) ezarri behar dituzte prozesuak garatu aurretik, eta era berean argitaratu egin behar dira erabiliko diren prozedurak deskribatuz.

JARRAIBIDEAK:

Xedeak argiak izatea eta prozedurak gardenak izatea ziurtatzeko kalitatearen kanpo-bermeko metodoak eraginpean hartutako agenteak (goi-mailako hezkuntzako erakundeak barne) biltzen dituen prozesu baten bidez diseinatu eta garatu behar dira. Azkenean adosten diren prozedurak argitaratu egin behar dira eta prozesuen xede eta helburu esplizituak bildu behar dituzte baita erabiliko diren prozeduren deskribapen bat ere.

Kalitatearen kanpo-bermeko prozesuek eraginpean hartutako erakundeei zenbait eskari planteatzen dizkie eta, beraz, aldez aurretik prozesu horiek erakundeetan izango duten inpaktua ebaluatu behar da, hain zuzen ere gauzatuko diren prozedurak egokiak direla eta goi-mailako hezkuntzako erakundeen eguneroko lana oztopatzen ez dutela ziurtatzeko.

Batzordearen oharrak.

Prozesuak garatu aurretik ebatzen dira Unibasqek garatutako ebaluazio-programen xede eta helburuak. Helburu horiek argi eta garbi ezarri dira ebaluazio-programa bakoitzean garatutako eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako protokoloetan. Ebaluazio-prozedura eta -irizpide guztiak alde aurretik argitaratzen dira Agentziaren webgunean.

Agentziako teknikariak arduratzen dira kanpo-ebaluazioko programak zehazteaz, eta Unibasqeko Aholku Batzordeari galdetzen diote helburuak estatuko eta eskualdeko lege eta araudien arabera zehazteko. Goi-mailako hezkuntzaren eremuko ikasle, profesional eta nazioarteko adituek eta hiru euskal unibertsitateetako akademikoek ordezkaritza dute Aholku Batzordean, baina bakoitzak bere izenean dihardu, erakundea ordezkatu gabe. Batzordeak uste du azpimarratzekoa dela egiaztapena berritzeko prozedurak garatzeko lantalde bat sortu izana hiru euskal unibertsitateetako langileen ordezkaritzarekin, Unibasqi adierazle eta ebidentzia egokien zerrenda proposatzeko ikasketa-programen egiaztapena berri dezan. Era berean, Unibasqek aldian behingo bilerak egiten ditu ebaluazioak gaintitu behar dituzten erakundeekin, haien helburuak, xedeak eta ebaluazio-sistemen prozedurak aztertzeke. Bilera horietan ebaluazio-programa berriak abian jartzeaz ere jarduten dute. Batzordeak aintzat hartzen du Unibasqek ikasleak modu sistematikoagoan sartu nahi izatea prozedura berrien garapenean, Ikasleen Aholku Batzordearen bitartez. Agian beste interesdun batzuek ere parte-hartze handiagoa eduki lezakete prozeduren garapenean, Aholku Batzordean duten ordezkaritzaren bitartez.

Bestetik, hartutako prozedurak alde aurretik zehaztutako helburuekin bat datoze bermatzeko, Agentziak bi proiektu pilotu jarri ditu abian AUDIT programaren eta Jarraipen-programaren esparruan, eta epe laburrean hirugarren bat ezarriko du egiaztapena berritzeko. Lortutako emaitzek balio handiko informazioa eskaini dute, hobetzeko aukerak identifikatzeko lagungarria. Gainera, emaitzak lagungarriak dira prozesuen helburuak lortzeko behar diren neurriak definitzeko. Ebaluazio taldeak aintzat hartzen ditu ekimen horiek guztiak. Goi-mailako hezkuntzako erakundeetako ordezkariek eskaintako informazioaren arabera, dirudienez DOCENTIA da ezarritako helburua betetzeko ebaluazio-programa desegokiena, eta, aldi berean, burokratikoena.

Gomendioak

Unibasqek pentsatu beharko luke zer egin interesdunek prozeduren garapenean parte-hartze handiagoa izan dezaten lortzeko, Aholku Batzordeko ordezkaritzaz gain.

Ondorioa

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 2.2 betetzen du neurri handi batean.

4.1.3 ESG 2.3- Erabakiak hartzeko irizpideak

IRIZPIDEA:

Kalitatearen kanpo-bermeko jarduera baten ondorioz hartutako erabaki formalak argitaratutako irizpide esplizituetan oinarritu behar dute eta modu koherentean aplikatu behar dira.

JARRAIBIDEAK:

Kalitatea bermatzeko agentziek hartutako erabakiek eragin handia izaten dute ebaluatzen diren erakunde eta programetan. Erabakiek argitaratutako eta modu kontsekuentean interpretatutako irizpideetan oinarritu behar dute, betiere ekitatearen eta fidagarritasunaren alde. Ondorioek jasotako ebidentzietan oinarritu

beharko dute eta agentziek ondorio horiek moderatzeko baliabideak izan beharko dituzte.

Batzordearen oharrak.

Ebaluazio-prozedurak eta ebaluazio-irizpide orokorrak gidatzen dituzten arauak beti jartzen dira jendaurrean, Agentziaren webgunean eta ebaluazioa aplikatu baino lehen. Unibasqek protokolo espezifiko bat lantzen du eta ebaluazio-programa bakoitzari aplikatzen dio, ebaluazio-programan aplikatu beharko liratekeen prozedura eta irizpideak ezarrita.

Ebaluazio-programa bakoitza ebaluazio-batzorde baten ardura da. Ebaluazio-batzordeek funtsezko zeregina betetzen dute hartutako erabakien koherentzia bermatzeko. Nagusiki, Euskaditik kanpoko akademiko espainolez osatuta daude batzorde horiek, bidezko bada, ikasle baten parte-hartzearekin. Ebaluazio-batzorde bakoitzak, argitaratutako ebaluazio-txosten guztien ardura hartzen du bere gain. Ebaluazio Batzordeko kide ez diren kanpo-ebaluatzaileak izanez gero (ikasketa-programak aldeztetik akreditatzeko arduradunak adibidez), kideetako batek kanpo-ebaluatzaileen ondorioak aurkeztuko ditu, eta txosten laburtu bat eta erabaki bat emango dio batzordearen osoko bilkurari. Jarraian, adituen ebaluazioak alderatuko dira, ebaluazio-irizpideak koherentziaz aplikatzen ari direla egiaztatzeko. Desadostasunik izanez gero, presidentek egoera konpontzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

Ebaluazio Batzordeen kanpo-eztabaidez gain, koherentzia bermatzeko beharrezkoa da, halaber, ebaluazio-prozesu bakoitzaren hasieran aditu guztiek prestakuntza jasotzea. Saio horietan prestakuntza eskaintzen da abian jarri beharreko prozeduraren, ebaluatu beharreko alderdien eta aplikatu beharreko irizpideen inguruan.

Koherentzia bermatzeko hirugarren neurri gisa, Agentziako langileek ziurtatzen dute prozesua ezarritako irizpide eta prozedurekin bat datorrela.

Ebaluazio Batzordearen ustez, ebaluazioei buruzko erabakiak hartzean koherentzia bermatzeko hartutako neurriak egokiak dira. Nolanahi ere, batzordea harrituta geratu zen AUDIT programaren Ebaluazio Batzordearen eta ebaluazio-programa bera aplikatzen duten beste erakunde batzuetako batzorde ebaluatzaileen artean inolako harreman edo truke formalik ez zegoela ikustean. Batzordeak ulertzen badu ere azken erabakien erantzukizuna Agentzia bakoitzari soilik dagokiola, truke hori lagungarri izan liteke herrialde osoan aplikazio koherente bat lortzeko.

Ondorioa

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 2.3 oso-osorik betetzen du.

4.1.4 ESG 2.4. Xedeetara egokitutako prozesuak

IRIZPIDEA:

Kalitatearen kanpo-bermeko prozesu guztiak diseinatzerakoan modu espezifikoan ziurtatu behar da prozesu horietarako ezarritako xede eta helburuak lortzeko egokiak direla.

JARRAIBIDEAK:

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan (GHEE) dauden kalitatea bermatzeko agentziek hainbat xede eta modalitate dituzten kanpo-prozesuak gauzatzen dituzte. Oso garrantzitsua da agentziek aldeztetik zehaztutako eta argitaratutako xedeetara egokitzen diren prozedurak martxan jartzea. Alabaina, esperientziak erakutsi digunez, kanpo-berrikuspeneko prozesuetan erabiltzen diren

zenbait elementuk prozesuen baliagarritasuna, fidagarritasuna eta erabilgarritasuna ziurtatzen laguntzeaz gain, kalitate-bermearen europar-dimentsiorako oinarri bat eskaintzen dute.

Elementu horien artean, honako hauek dira aipagarrienak:

- behin eta berriz ahalegina egitea kalitatearen kanpo-bermeko jarduera gauzatzen duten ebaluatzaileek profil egokiak izan ditzaten eta beren zereginak ondo betetzeko gai izan daitezen;
- ebaluatzaileak arreta handiz aukeratzea;
- ebaluatzaileei egokitutako informazio- edo prestakuntza-saioak eskaintzea;
- nazioarteko ebaluatzaileak izatea;
- ikasleek parte hartzea;
- erabilitako berrikuspen-prozedurak argudioak eta ondorioak justifikatzen dituen ebidentzia egokia eskaintzeko nahikoak direla bermatzea;
- honako hauek biltzen dituen berrikuspen-eredua erabiltzea: autoebaluazioa, kanpo-bisita, txostenaren zirriborroa, argitaratutako txostena eta jarraipena;
- erakundeen hobekuntza-politikek kalitatea bermatzeko funtsezko elementu gisa duten garrantzia onartzea.

Batzordearen oharrak.

Unibasq arautzen duen 13/2013 Legeak zehazten du ebaluazio-batzordeen osaera orokorra. Unibasqeko adituak **hautatzeko** betekizunak Agentziaren webgunean bildu dira, eta Aholku Batzordeak onartu zituen. Oro har, deialdi irekiaren bidez hautatzen dituzte adituak. Aholku Batzordeak hautagaien curriculumak aztertzen ditu, eta ebaluazio-batzordeetako kide batzuk proposatzen dizkio zuzendariari, hark izenda ditzan, ahal dela batzordean osaera orekatua bilatuz. Agentzia adituekin harremanetan jar daiteke, baina soilik baldin eta alor espezifikoko jakin bateko aditu batek ere deialdiari erantzuten ez badio. Hori gutxitan gertatzen da, ordea, Agentziak 1.000 aditutik gorako taldea duelako, guztiak ere Aholku Batzordeak ebaluatuak (bisitaldian egiaztatu genuen 57 aditu parte hartzen ari zirela ebaluazio-batzordeetako batean). Aditu gehienek aktiboki jarduten dute edo jardun dute Espainiako goi-mailako hezkuntzako erakundeetan, Euskaditik kanpo.

Ebaluazio-jarduerak martxan jarri baino lehen, Unibasqek informazioa eta **prestakuntza** eskaintzen die adituei, eta, bidezko bada, informazio-bilera osagarriak antola ditzake ebaluazio-prozesu osoan zehar. Trebakuntza-prozesu horretan zehar, Agentziak adituei ebaluazioaren kudeaketari buruzko informazioa eskaintzen die, txostenak lantzeko jarraibideak eta ebaluazioa bideratzeko azalpenak ematen dizkie, eta abar. Batzordeak ebaluazio-batzordeetako hainbat kideekin hitz egin du, eta guztiek uste dute jasotzen duten prestakuntza egokia dela.

Nazioarteko adituei dagokienez, Gobernu Kontseiluak eta Aholku Batzordeak nazioarteko zenbait kide dituzte. Ebaluazioak egiten dituzten ebaluazio-batzordeetan, ordea, ia-ia ez dago nazioarteko aditurik. Ebaluazio batzordeak proposatzen du prozedura batzuk garatzea ebaluazioetan nazioarteko adituen parte-hartzea bermatzeko. Ez dirudi zaila denik espainolez dakiten atzerriko adituak aurkitzea. Eta litekeena da, halaber, atzerrian diharduten zenbait euskal akademiko Unibasqen ebaluazioak egiteko prest egotea euskara jakitea eskatzen den kasuetan.

Unibasqek **ikasleen** parte-hartzerari eskaintzen dio arreta berezia. Unibasq arautzen duen Euskadiko 13/2013 Legeak ezartzen duenez, ebaluazio-batzordeetan parte hartu behar dute, besteak beste, "ebalatu beharreko arloetako ikasleek, ikasleengan eragin zuzena izan dezaketen programa eta jarduerak ebaluatzeko. Euskadiko unibertsitate-ikasleen parte-hartzerako organo espezifikokoak izendatuko ditu ikasleak". Dagoeneko ikasleek parte hartu dute Unibasqen programa batzuetan, zehazkiago DOCENTIA eta AUDIT programetan, baita ikasketa-

programen ebaluazioan ere. Gainera, ikasleek parte hartzen dute Agentziaren Gobernu Kontseiluko eta Aholku Batzordeko eskubide osoko kide gisa, eta funtsezkoak dira goi-mailako hezkuntzaren kalitatea bermatzeko. Ikasketa-programekin zerikusia duten ebaluazio-prozeduretan eta kalitatea bermatzeko prozesuetan ikasleek sistematikoki parte hartzeko egindako ahalegina eskertu nahi du taldeak. Taldeak uste du ez dela beti erraza izaten ikasleak ebaluazio-batzordeetan parte hartzeko prest egotea. Taldeak aintzat hartzen du ikasleen organo espezifiko bat sortu izana ikasleen parte-hartzea sustatzeko, eta talde horrekin akordio bat sinatu izana. Taldeak Unibasq animatzen du ikasleen parte-hartzerako prozedura malguak abian jar ditzan, parte-hartze hori egonkorra eta erregularra izan dadin bermatzeko.

Unibasqek zenbait ebaluazio-sistema garatu ditu. Ebaluazio-programa guztiek ez dute biltzen autoebaluazio bat, bisitaldi bat, behin behineko txosten bat, behin betiko txosten bat eta **ebaluazio-eredu** baten jarraipena.

Ikasketa-programei dagokienez, orain arte prozedura guztiak paperean garatu dira, hau da, ikasketa-programaren arduradunen eta ebaluatzaileen arteko harreman zuzenik gabe. Aldez aurreko akreditazio-prozeduran, programaren arduradunek Unibasqi eskaera bat aurkezten diote. Eskaera horri "autoebaluazio-txostena" esaten bazaio ere, batzordeko ebaluatzaileentzat dokumentazioa baino ez da. Jarraian, behin behineko txosten bat egiten da, ebaluatzaileek dokumentazioari buruz egindako azterketan oinarrituta. Ikasketa-programa batek erreakzionatzeko aukera eskaintzen du beti, txostena amaitu baino lehen. Txosten hori ez da argitaratzen Unibasqen webgunean. Eusko Jaurlaritzak hartzen du azken erabakia, txosten horretan eta ANECAren aldez aurreko ebaluazio-txostenean oinarrituta. Jarraipen-prozedura espezifiko bat dago abian, eta haren txostenak argitaratzen dira. 2014an egiaztapena berritzeko prozedura bat jarriko da martxan. Prozedura berri horrek berrikuspen-eredu osoa bilduko du, autoebaluazioa, bisitaldia eta txosten publikoa barne.

Erakunde-mailan, AUDIT eta DOCENTIA borondatezko ebaluazioko programetan zenbait urrats bereizi dira: sistemaren diseinua, sistemaren aplikazioa eta aplikazioaren urteko jarraipena, eta aplikazio egokiaren ondoko ziurtapena. Ziurtatze-fasean bakarrik egiten da bisitaldia.

Batzordeak erakundeetako hainbat ordezkariarekin hitz egin du, eta guztiek uste dute berrikuspen-eredua egokia dela. Ebaluatzaileekiko eragina ere egokia dela uste dute. Alabaina, batzordeak Unibasqi eskatu dio prozedurak berraztertzeko, eta, horren arabera, berrikuspen-eredu osoa ebaluazio-sistema gehiagotan sartzeko. Hasteko, batzordeak aldaketa handiak atzeman ditu autoebaluazio-txostenen autokritika-alderdietan. Unibasqek autoebaluazio-prozesua ahalbidetzen du "Ikasketa-programa jarraitzeko autotxosten-eredua" eta "Ikasketa-programen autoebaluaziorako gida" garatuz. Nolanahi ere, batzordearen iritziz ikuspegi autokritikoari eutsi behar zaio, kalitatea bermatzeko kanpo-sistemaren inpaktua hobetzeko funtsezkoa delako. Hori ere kontuan hartzekoa da egiaztapena berritzeko prozedurak aplikatzean. Bigarrenik, taldeak proposatzen du bisitaldiak egitea oraindik bisitaldirik egiten ez den tokietan. Pairen arteko berrikuspen-prozedurei balioa eransteko lagungarri izan daitezke bisitaldiak. Izan ere, pareen arteko elkarreragin aktiboa kalitatea bermatzeko kanpo-prozesuen balio erantsi nagusizat jotzen da, eta dirudienez elkarreragin hori urria da egungo prozeduretan. Hirugarrenik, txosten guztiak argitaratu behar dira eta behar adina informazioa eskaini, irakurle ezjakinak ebaluazioa ulertzeko aukera izan dezan (ikus ESG 2.5).

Langileen ebaluaziorari eta akreditaziorari dagokienez, ebaluazioa beti oinarritzen da ebaluatua izan nahi duen pertsonak aurkeztutako espediente batean. Jarraian, eskatzaileari behin-behineko txostena bidaltzen zaio, espediente horretan

oinarrituta. Eskatzaileak erreakziona dezake txostena amaitu baino lehen. Txosten publikorik ez da egiten, txostenen edukiak pribatutasun-araudia bete behar duelako. Batzordearen arabera, berrikuspen-eredu hori egokia da langileen ebaluazio eta akreditaziorako.

Unibasqek AUDIT eta DOCENTIA erabiltzen ditu erakundeak hobetzeko politikak sustatzeko, eta, horrela, kalitatea bermatzeko. Zentro- edo erakunde-mailako ebaluazio-programa horiekin batera, ikasketa-programen mailan, kanpo-ebaluazioko programek kalitatea hobetzeari ematen diote lehentasuna. Batzordeak uste du horixe dela ikuspegi egokia.

Azkenik, batzordeak uste du erakundeetako ordezkariak, orokorrean, Unibasqek aplikatutako ebaluazio-programen ebaluazio positiboa egiten dutela, argi eta garbi, baina nolnahi ere nabarmendu nahi du DOCENTIA ebaluazio-programa berraztertu beharko litzatekeela, burokrazia kentzeko eta beraz errazago erabili ahal izateko. Lan-karga dela-eta, langileentzat zaila da DOCENTIAren esku beharrezko datuak uztea, eta hori dela-eta parte hartzeko borondatea txikia da. Hobekuntzak nabari badira ere, antza denez administrazio-karga nabarmen murriztu beharko litzateke DOCENTIA programak onarpen orokorra lor dezan. Programa Espainiako beste erakunde batzuekin batera garatzen denez, DOCENTIAren berrikuspena haiekin elkarlanean egin behar da.

Gomendioak

- Unibasqek prozedura malguak aplikatu behar ditu ebaluazio-batzordeetarako ikasleak hautatzeko prozesuan, ikasleen aldetik ahalik eta parte-hartze handiena bermatzeko.
- Unibasqek bere prozedurak berraztertu beharko lituzke, azterketa osoko eredu ebaluazio-programa gehiagotan sartzeko.
- Unibasqek jarraitu behar du autoebaluazio-txostenetan autokritika egiten.
- Unibasqek DOCENTIAren prozeduren berrikuspena jarri behar du abian, ebaluazio-programa horren administrazio-karga murrizteko Espainiako beste erakunde batzuekin elkarlanean.

Ondorioa

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 2.4 betetzen du neurri handi batean.

4.1.5 ESG 2.5 Txostenak egitea

IRIZPIDEA:

Txostenak modu argian argitaratu eta idatzi behar dira, hartzaileek erraz uler ditzaten. Txostenetako erabakiak, iritziak edo gomendioak irakurleek erraz aurkitzeko moduan idatziko dira.

JARRABIDEAK:

Kalitatearen kanpo-bermearen prozesuei etekin handiena ateratzea ziurtatzeko garrantzizkoa da txostenek hartzaileen beharrak asetzea. Batzuetan txostenak irakurle-talde desberdinei zuzenduta daude eta horrek txostenen egiturari, edukiari, estiloari eta hizkerari arreta handia jartzea eskatzen du.

Oro har, txostenak deskripzioa, analisisa (baita egokia den edozein frogare), ondorioak, iritziak eta gomendioak biltzeko moduan egituratu beharko dira. Aurretiazko azalpen bat erantsi behar da gaian ezjakina den irakurle batek berrikuspenaren xedeak, izaera eta erabakiak hartzeko erabilitako irizpideak uler ditzan. Funtsezko argudioak, ondorioak eta gomendioak irakurleek erraz aurkitzeko moduan idatzi beharko dira.

Txostenak modu eskuragarrian argitaratu behar dira, hartzailleek (dagokion erakundearen barrukoak nahiz kanpokoak) txostenaren erabilgarritasunari buruzko iruzkinak egitea ahalbidetuz.

Batzordearen oharrak.

Ebaluazio-batzordeek beren gain hartzen dute ebaluazio-txostenak egitea. Txostenen egiturak, aldezturik ezarritako jarraibide, eredu, protokolo eta irizpideei jarraitzen die. Oro har, txostenen egituraren sarrera moduko bat sartzen da, eta bertan, txostenaren helburua zehatz-mehatz azaltzen da, egindako jardura deskribatu eta aztertzen da, eta ondorio, errekonozimendu eta hobetzeko gomendioak aipatzen dira.

Ebaluazio-txostenak honela helarazten zaizkio zuzenean alderdi interesdunari:

- Ikasketa-programen eta haien jarraipena eta gainbegiraketa egiteko txostenen ebaluazioa: ebaluatutako alderdiari eta unibertsitateen ardura duen Eusko Jaurlaritzaren Sailari jakinaraziko zaizkio behin betiko txostenak. Era berean, ikasketa-programen jarraipena egiteko txostenak Agentziaren webgunean argitaratzen dira.
- DOCENTIA eta AUDIT programen erakunde-ebaluazioko txostenak: webgunean argitaratzen dira txostenak, behin ebaluatutako erakundeari jakinarazi eta gero.
- Irakasleen ebaluazioa: banako ebaluazioak direnez, interesdunak soilik jasoko du ebaluazioaren emaitzari buruzko informazioa. Prozedura hori bat dator datu pertsonalei buruzko lege-esparruarekin.

Bisitaldian batzordeak izandako eztabaidak kontuan hartuz, argi dago Jaurlaritzak eta ebaluatutako alderdiak bakarrik dutela Unibasqen txostenak irakurtzeko aukera. Batzordeak iradokitzen du txostenak irakur ditzaketenen kopurua zabaltzea.

Unibertsitateek eta Eusko Jaurlaritzak erantzun positiboa ematen dute argitaratutako txostenen erabilgarritasunaren inguruan. Batzordeak ebaluazio positibo hori babestu du. Hobetzeko iradokizunei dagokienez, batzordeak egiaztatu du kontsultatutako txosten guztietan biltzen direla kalitatea hobetzeko iradokizun argiak.

Nolanahi ere, txostenetan, hobetzeko proposamenekin batera, ondorioak eta ondorioen justifikazio argiak bildu behar dira. Antza denez, ondorioen justifikazioa argia da goi-mailako hezkuntzako erakundearentzat, baina batzordeak berrikusi dituen txosten gehienetan, ondorioak ez dira behar bezala justifikatu. Batzordeak Unibasqi eskatzen dio ebaluazio-prozedurak berrikusteko, eta, horrela, ondorio positibo edo negatibo batera daramaten funtsezko ohar guztiak txostenetan argi eta garbi adierazteko. Hori lagungarri izan daiteke, halaber, ebaluazioarekin oso ohituta ez dagoen jendeak ere txostenak irakurtzeko aukera izan dezan.

Gomendioak

- Bere txostenetan, Unibasqek argiago jaso behar ditu ondorioetara daramaten funtsezko ohar guztiak.
- Bere txostenak irakur ditzaketenen kopurua handitzeko aukera aztertu beharko luke Unibasqek.

Ondorioa

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 2.5 betetzen du, neurri batean.

4.1.6 ESG 2.6 Jarraipen-prozedurak

IRIZPIDEA:

Ekintzarako gomendioak biltzen dituzten edo ekintza-plan bat eskatzen duten kalitate-bermeko prozesuek aurrez ezarritako jarraipen-prozedura bat bildu behar dute, behar bezala ezarriko dena.

JARRABIDEAK:

Kalitate-bermea ez dagokie bereziki kanpo-berrikuspeneko banakako jardueri: batez ere, etengabe lan hobea egiteko jarduera bat izan beharko du. Kalitatearen kanpo-bermerako ez da nahikoa txostena argitaratzea eta, beraz, prozesuan jarraipen-prozedura bat egin behar da gomendioak modu egokian aztertzen direla eta eskatutako ekintza-planak diseinatzen eta gauzatzen direla ziurtatzeko. Horrek eska dezake ondoren erakundeetako edo programetako ordezkariekin biltzea. Helburua honako hau da: hobetzeko arlo gisa identifikatutako arloei azkar ekiten zaiela eta jasotako hobekuntzak sustatzen direla ziurtatzea.

Batzordearen oharra.

Unibasqek jarraipen-jarduerak garatzen ditu kalitatea bermatzeko gauzatutako prozesuetan ekiteko gomendioak biltzen direnean edota prozesu horiek ondorengo ekintza-plan bat eskatzen dutenean.

Ikasketa-programa ofizialak

Espainiako lege-esparruak kalitatea bermatzeko agentziei eskatzen die ikasketa-programa "ofizialen" (Espainiako lurralde osoan balio duen titulazioa lortzeko aukera ematen dutenak) aldi behingo jarraipena egiteko. Kontrol-prozesu hori oinarritzen da eskuragarri dagoen informazio publikoan batetik, eta unibertsitateek prozesu oso batean lortzen duten informazioan bestetik; prozesu horretan, kalitatea bermatzeko barne-sistema aplikatzen dute, eta, jarraian, proposamen bat aurkezten dute, ondoren egiaztatzeko. Une horretantxe hasten da ziklo berri bat.

Ikasketa-programen jarraipena egiteko, besteak beste, dagokion programaren kanpo-ebaluazioko txostenetan ezarritako gomendioei erantzunez unibertsitateek hobetzeko ekintzak (egiaztatzea, baimentzea, gainbegiratzea eta jarraipenean parte hartzen duten adituek kontsultatzeko moduko AUDIT txostenak) egin ote dituzten aztertu behar da, eta, hori ez ezik, egindako gomendioen jarraipenerako neurririk hartu ote den ere ikusi behar dute, eta, neurririk hartu ez bada, zergatik ez den egin egiaztatu.

Unibasqek urteko jarraipen-txostenen lagin bat baino ez du ebaluatzen irizpide jakin batzuetan oinarrituta. Irizpide batzuk alde aurretik ezarrita daude, eta beste batzuk, berriz, ausaz hautatzen dira. Hortaz, ezin dezakegu bermatu gomendio guztiak kontuan hartzen direla, ezta Unibasqek kasu guzti-guztiak egiaztatu izana ere. Nolanahi ere, goi-mailako hezkuntzako erakundeek ikasketa-programa bakoitzaren jarraipenari buruzko autoebaluazio-txostenak argitaratu behar dituzte beren webguneetan, ikasleen esku jartzen duen gainerako informazioarekin batera. Horrek aukera ematen du jendeak, oro har, ikasketa-programak hartu dituen jarraipen-neurriak aztertzeko aukera izan dezan.

AUDIT eta DOCENTIA

Unibasqek AUDIT eta DOCENTIA programen esparruan ebaluatutako erakundeak gainbegiratzen ditu, beste erakunde parte-hartzaile batzuekin elkarlanean landutako programa horiei aplikatzekoak diren prozedurekin bat etorritz. Kalitatearen barne-kudeaketako sistemaren ebaluazio positiboa egin ondoren ezartzen da sistema. Unibasqek ziurtatzen du kalitatea bermatzeko barne-sistemak ongi ezarri direla. Ziurtapen hori bost urtean behin berri behar da. Aldi horretan

jarraipen-prozesua egiten da. Orobat, ikasketa-programen jarraipena egitean, kalitatea bermatzeko barne-sistemaren aplikazioa berrikusten da.

DOCENTIA programari dagokionez, unibertsitateko irakasleak ebaluatzeko prozedurak ebaluazio positiboa ebatzi ondoren, Unibasqek haren aplikazioa gainbegiratzeko du gutxienez bi urtez, eta hirugarren urtean ziurtapena onar dezake.

Langileen ebaluazioa

Langileak ebaluatzeko prozeduren barruan, Unibasqen jarraipen-zeregin bat ere ez da esleitzen. Jarraipena goi-mailako hezkuntzako erakundearen erantzukizuna da.

Ondorioa

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 2.6 oso-osorik betetzen du.

4.1.7 ESG 2.7 Aldizkako ebaluazioak

IRIZPIDEA:

Erakundearen eta/edo programen kalitatearen kanpo-bermea modu ziklikoan gauzatu behar da. Zikloaren iraupena eta erabiliko diren ebaluazio-prozedurak ondo definitu behar dira eta aurretiaz argitaratu.

JARRABIDEAK:

Kalitate-bermea ez da prozesu estatikoa, dinamikoa baizik. Prozesu etengabea izan beharko luke eta ez "bizitzan behin" egiten dena. Ez da lehen ebaluazioarekin amaitzen ezta jarraipen formaleko prozedura amaitu ondoren ere. Aldian-aldian berritu egin behar da. Ondorengo kanpo-ebaluazioetan kontuan hartu behar dira aurreko ebaluazioan egindako aurrerapenak. Kalitatearen kanpo-bermeko agentziek ondo zehaztu beharko dituzte kanpo-berrikuspenetan erabiliko diren prozesuak eta prozesu horietan erakundeak eskatzen zaiena ez da helburuak betetzeko behar dena baino gehiago izango.

Batzordearen oharrak.

Ikasketa-programen ebaluazioa (aldez aurreko akreditazioa, jarraipena eta egiaztapena berritzea) eta hezkuntza-erakundearen ebaluazioa (AUDIT eta DOCENTIA programak) ziklikoki egiten dira, ebaluazio-programa bakoitzerako aldez aurretik zehaztuta eta ezarrita dauden ebaluazioaldien arabera.

Espainiako araudiak ezartzen duenez, ikasketa-programa baten ezarpenak aldez aurreko ebaluazioa eskatzen du. Egiaztapen hori 6 urtean behin berritu behar da lizentzien (gradua) eta doktoregoen kasuan, eta 4 urtean behin masterren kasuan. Aldez aurreko akreditaziotik eta egiaztapen hura berritu arte, Unibasqek ikasketa-programaren ezarpenaren jarraipena egiten du (ikus ESG 2.6).

AUDIT programaren arabera, kalitatea bermatzeko barne-sistemaren ezarpena ziurtatu ondoren aldian behingo jarraipena egiten da. Ziurtapena bost urtean behin berritu behar da, baina programaren etapa hori fase pilotuan dago une honetan. DOCENTIA programari dagokionez, Unibasqek aintzat hartzen du irakaskuntza-jardueraren ebaluazioaren diseinua. Behin aldeko ebaluazioa eman ondoren, unibertsitateak ezarpen praktikoa jartzen du martxan. Etapa horretan prozesuaren jarraipena egiten da, eta behin onartu eta gero, unibertsitateak ebaluazio-prozeduren ziurtapena jasotzen du. Ziurtapenaren ostean, ebaluazio ziklikoa ezartzen da.

Ondorioa

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 2.7 oso-osorik betetzen du.

4.1.8 ESG 2.8 Sistema osoaren azterketa

IRIZPIDEA:

Kalitate-bermeko agentziek aldizkako txostenak landu behar dituzte, hain zuzen ere emaitza orokorrak, berrikuspenak, ebaluazioak, balioespenak eta abar modu laburrean deskribatu eta aztertzen dituztenak.

JARRAIBIDEAK:

Kalitatearen kanpo-bermeko agentzia denek banakako programei eta/edo erakundeei buruzko informazio asko biltzen dute eta horrek material asko sortzen du oro har goi-mailako hezkuntzako sistemen azterketa egituratuak egiteko. Azterketa horiek informazio oso baliagarria eman dezakete garapenei, joerei, jardunbide egoki berriei eta zailtasunak edo ahuleziak dituzten arloei buruz eta, beraz, politikak garatzeko eta kalitatea hobetzeko erreminta erabilgarriak izan daitezke. Agentziek ikerketa- eta garapen-zeregina beren gain hartu beharko dute beren jardueretan, lanari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Batzordearen oharrak

Arau horren arabera, Unibasq arautzen duen legeak zehazten du euskal gizarteari informazioa eskaini behar diola bere jardueren emaitzen inguruan. Gainera, administrazio publikoei, unibertsitatei eta bestelako agentzei (hezkuntza arlokoiei zein zientzia- eta teknologia-arlokoiei) jakinarazi behar dizkie Agentziaren arlo funtzionaltan erabakiak hartzeko erabilitako informazioa eta jarraibideak. Unibasqek bi sinposio antolatu ditu, batetik, "Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea: guztion konpromisoa da", eta, bestetik, "Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea: erabiltzaileen ikuspegia", baina hala eta guztiz ere onartzen du lortutako emaitzei buruzko informazio osagarria dakarten txostenak lantzeko alorrean hobetu beharra dagoela. Izan ere, Unibasqek antolatutako sinposioek garrantzi handiagoa eman diote bere funtzionamenduari buruzko informazioa eskaintzeari, interesdunek haren prozeduretan parte har dezaten lortzeko, ebaluazioen emaitzen edukia zabaltzeari baino. Batzordeak azpimarratu nahi du Unibasqek gehiago inbertitu beharko lukeela euskal unibertsitate-sistema osoa aztertzeko lanetan. Baliabide osagarriak bilatu beharko ditu horretarako.

Estatu-mailan, Unibasqek zenbait ekimenetan parte hartu du Espainiako beste zenbait kalitate-agentziarekin elkarlanean. 2008. urteaz geroztik parte hartzen du Espainiako unibertsitateen kalitatearen kanpo-ebaluazioaren egoerari buruzko txostena idazteko lanean. Gainera, Unibasqek antolatu zuen 2012ko AUDIT programan ebaluazio positiboa lortu zuten Espainiako goi-mailako hezkuntzako erakundeei emandako ziurtagirien urteko entrega nazionala. 2013an, Unibasqek antolatu zuen, Espainiako beste kalitate-agentzia batzuekin batera, "DOCENTIA programaren jardunbide hobeei buruzko I. biltzarra". Unibasqek eta Espainiako gainerako kalitate-agentziek elkarlanean dihardute unibertsitate-informazioko sistema integratu berriaren diseinuan. Espainiako unibertsitate-sisteman zenbait adierazle zehaztea da unibertsitate-informazioko sistema integratuaren xedea, eta adierazle horiek kalitatezkoak eta fidagarriak izan behar dute, errealitatea zehaztasunez islatzeaz gain. Batzordeak aintzat hartzen ditu ekimen horiek guztiak.

Gomendioak

- Unibasqek kalitatea bermatzeko kanpo-prozesuetako emaitzetan oinarritu behar du euskal unibertsitate-sistema osoa aztertzeko.

Ondorioa

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 2.8 betetzen du, neurri batean.

4.1.9 Batzordeak ESG 3.1i buruz egindako oharrak

Unibasq 2004an sortu zen, Uniquial izenarekin. 2009an aldaketa-prozesua hasi zen Agentzian, estatutuak eta funtzionamendua ESGetara egokitzeko helburuarekin.

Prozesu zabal horren ondorioz, 2011ko urtarrilean Agentziaren estatutuak aldatu ziren, eta Unibasq izena hartu zuen. Alabaina, Europarekin bat egiteko bilatze horrek agerian jarri zuen, halaber, lege berri baten premia zegoela, beharrezko aldaketa guztiak txertatzeko eta Agentzia erakunde profesional eta independentea izatea bermatzeko. Aurrerapen handi hori 2012an gauzatu zen, Unibasq euskal unibertsitate-sistemaren kalitate-agentzia arautzen duen Euskadiko Legea onartu ondoren. Lege berriaren babespean, Agentziak estatutu berriak onartu zituen, eta Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzean onartu zituen. Ekarritako dokumentuen azterketan eta Unibasqen lanean inplikaturako alderdiekin egindako bileretan oinarrituta, batzordeak ondorioztatu du azken urteetan Unibasqen lanaren kalitatea nabarmen hobetu dela, hainbat ebaluazio-programa abian jarriz eta prozedurak osatzen dituen ikasketa-programaren mailako egiaztapena berritzeko prozeduraren atarian kokatuz. Agentziak onespenez zabala jaso du euskal unibertsitate-sistemaren kalitate-kulturari egiten dion ekarpenarengatik. Batzordeak hobetzeko alor batzuk ikusi ditu ESGren 2. zatian, baina aldi berean konbentziturata gaude Agentziaren kalitatea bermatzeko kanpo-jardueretan kontuan hartzen dituztela ESGren 2. zatian deskribatutako kalitatea bermatzeko kanpo-prozesuen presentzia eta efikazia. Unibasqek ESG 2.3, 2.6 eta 2.7 betetzen ditu, oso-osorik. Unibasqek ESG 2.1, 2.2 eta 2.4 betetzen ditu, neurri handi batean. Unibasqek ESG 2.5 eta 2.8 betetzen ditu, neurri batean.

ESG 3.1i buruzko ondorioa. Kalitatea bermatzeko kanpo-prozedurak goimailako hezkuntzan erabiltzea

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 3.1 betetzen du neurri handi batean.

b. ESG 3.3: Jarduerak

IRIZPIDEA:

Agentziek modu erregularrean gauzatu beharko dituzte kalitatearen kanpobermeko jarduerak (erakunde-mailan edo programa-mailan).

JARRABIDEAK:

Jarduerak ebaluazioa, berrikuspena, auditoretza, balioespena, egiaztapena edo antzeko jarduerak izan daitezke betiere agentziaren funtsezko eginkizuna osatzen dutenak.

Batzordearen oharra

Unibasqek euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea ebaluatu, akreditatu eta ziurtatzeko ardura dauka. 2006. urteaz geroztik, kalitatea bermatzeko kanpo-sistemarekin lotutako jarduerak erregularri garatu ditu Unibasqek.

Ikasketa-programen mailan, Unibasqek bere gain hartzen ditu titulu ofizial gradu, master eta doktorego-programa guztien alde aurreko akreditazioa eta jarraipen-prozedurak. 2014tik aurrera, Euskadiko ikasketa-programa ofizial guztien egiaztapena berritzeko prozesuen ardura hartuko du. Gradu- eta doktorego-programen egiaztapena 6 urtean behin berri behar da, eta master-programen egiaztapena, berriz, 4 urtean behin. Gainera, Unibasq Euskal Herriko Unibertsitateko "berezko titulu" berrien borondatezko ebaluazioez arduratzen da.

Erakunde-mailan, euskal unibertsitate-sisteman AUDIT eta DOCENTIA borondatezko programa nazionalak aplikatzeaz arduratzen da Unibasq. Halaber, unibertsitateen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko programa-kontratuen urteko ebaluazioak egiten ditu Unibasqek.

Espainiako unibertsitate-sistemaren ezaugarri espezifikoetako bat irakasle eta ikertzaileen kanpo-ebaluazioa da, kalitatea ebaluatzeko erakundeek zuzendu beharrezkoa. ANECA arduratzen da ebaluazio hori egiteaz, funtzionario publikoen kasuan. Eskualdeko agentziek kontratupeko langileen ebaluazio-eginkizunak har ditzakete beren gain. Bi ebaluazio mota desberdin egiten dira jardura horren arabera. Lehen ebaluazioak lan-karga handia eskatzen dio Unibasqui. Irakasle eta

ikertzaileak ebaluatzen dituzte, ondoren akreditatzeko, akreditazioa ezinbesteko baldintza baita unibertsitate batean lan-kontratu bat lortzeko. Horregatik urtero-urtero deialdiak egiten dituzte horretarako. Bigarren jardueraren xedea, berriz, irakasle eta ikertzaileen jarduna ebaluatzea da. Langile akademikoei sei urtean behin ("seiurtekoak") egin behar zaie ebaluazioa. Funtzionarioei dagokienez, Estatuan CNEAI arduratzen da ebaluazio hori egiteaz. Kontratupeko langileen kasuan, Unibasqek ebaluazio-deialdiak koordinatzen ditu, eta CNEAIko ebaluazio-batzordeei eskaerak aurkezten dizkie.

Euskadin egiten dituen jardueraz gain, Euskaditik kanpoko ikerketa-jarduera eta ikerketa-proiektuak ebaluatzeko programak ere aplika ditzake Unibasquek. Ildo horretan, 2013an, Balear Uharteetako Unibertsitatean doktoratu ondoko bi lanpostuetarako eskaerak ebaluatzeko konpromisoa hartu zuen Unibasqek. Batzordeak Unibasqi iradokitzen dio horrelako jardueretan zeregin proaktiboagoa bete dezan, jarduera horiei esker Agentziak eta Agentziako langileek esperientzia berriak izango dituztelako, Euskadin betetzen duten lana ongi bilakatzeko lagungarri izan daitezkeenak. Batzordeak Unibasqi eskatu dio Latinoamerikarekin lankidetzaprogramak martxan jar ditzan, bisitaldian aipatu zirenak.

Ondorioa

Batzordearen ustez, Unibasqek ESG 3.3 betetzen du, oso-osorik.

ENQAren 1. irizpideari buruzko ondorioa

Kontuan hartuta Unibasqek ESG 3.1 neurri handi batean betetzen duela eta ESG 3.3 oso-osorik betetzen duela, batzordeak ondorioztatu du Unibasqek ENQAren 1. irizpidea neurri handi batean betetzen duela.

4.2 ENQAREN 2. IRIZPIDEA / ESG 3.2: MAILA OFIZIALA

IRIZPIDEA:

Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan eskumena duten agintari publikoek agentziak modu formalean onartu behar dituzte kalitatearen kanpoberean erantzukizuna duten agentzia modura eta sendotutako lege-oinarria izan behar dute. Era berean, agentziek jarduten duten lege-jurisdikzioan eskatzen diren baldintzak bete behar dituzte.

Batzordearen oharra

2012ko ekainaren 28ko 13/2012 Euskal Legeak arautzen du Unibasq euskal unibertsitate-sistemaren kalitate-agentzia. Lege horren 2. artikulua ezartzen duenez, Agentziaren xedea honako hau da: "euskal unibertsitate-sistemaren baitan kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzea, Espainiako, Europako eta nazioarteko esparruak aintzat hartuta".

Agentziak honako xede hauek dauzka:

- a) Euskal unibertsitate-sistemaren esparruan kalitatea sustatu eta bermatzea, Espainiako, Europako eta nazioarteko esparruak aintzat hartuta.
- b) Euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzen laguntzea.
- c) Gizarteari agentziak garatutako jardueren emaitzen berri ematea.
- d) Administrazio publikoei, unibertsitateei eta hezkuntzako beste eragile batzuei edo beste eragile zientifiko-teknologiko batzuei informazioa eta irizpideak ematea Agentziak dituen eginkizunen gaineko erabakiak hartzeko prozesuetan.

Lege berria betez, 2013ko apirilaren 16an 204/2013 Dekretua onartu zen Unibasqen estatutuak onartzeko.

Unibasqek bere eginkizunak betetzen ditu zuzenbide pribatuaren eraginpeko erakunde publiko baten forma juridikoarekin, eta unibertsitateen ardura duen Eusko Jaurlaritzaren sailari lotuta. Berezko eskubidea duen lege-erakundea da, jarduteko gaitasun osoa duena eta bere baliabideak guztiz kontrolatzen dituen, eginkizunak bete ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, eskumeneko agintarien onespenez argia jaso du Unibasqek, eta lege-oinarri bat ezarri du.

Ondorioa

Batzordeak ondorioztatzen du Unibasqek ESG 3.2 oso-osorik betetzen duela, eta, beraz, ENQAREN 2. irizpidea oso-osorik betetzen duela.

4.3 ENQaren 3. irizpidea / ESG 3.4: Baliabideak

IRIZPIDEA:

Agentziek baliabide egokiak eta proportzionalak (giza- eta finantza-baliabideak) izan behar dituzte antolatzeko eta kalitatearen kanpo-bermeko prozesuak modu efikazagoan eta eraginkorragoan gauzatzea ahalbidetzeko, betiere beren prozesuak eta prozedurak qaratzeko baliabide egokiak izanez.

Batzordearen oharra

2014an Unibasqen urteko aurrekontua 963.035€ izan da, eta gehiena Eusko Jaurlaritzaren eskutik dator. Diru-sarreraren % 10 baino gutxiago beste kontzeptu batzuetatik datoz, hala nola proiektu nazional eta nazioarteko proiektuetatik, eta langile akademikoak ebaluatzeko programaren ebaluazioetatik.

Krisi ekonomikoa dela-eta eta zenbait ebaluazio-programaren lan-kargaren murrizketa tarteko, aurrekontua poliki-poliki murriztu da 2007ko 1.7 milioi euroko aurrekontutik. Unibasqen Gobernu Kontseiluaren eta langileen arabera, Agentziak orain arte izan duen aurrekontua nahikoa izan da agindutako jarduerak garatzeko. Alabaina, batzordeak bisitaldian egin zituen elkarrizketetatik ondorioztatzen da aurrekontu hori urria dela, eta beraz Unibasqek nekez lortuko duela eginkizun guztiak betetzea.

Indarreko lege-esparruak (13/2012 Legea) ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorrek Agentziari beharrezko baliabideak esleitu behar dizkiote bere eginkizunak bete ditzan, urte anitzeko kontratu-programa bat betez. Finantziario-eredu berri hori 2014tik aurrera hasiko da indarrean. Sistema horrek badu ezaugarri berezi bat, izan ere, finantziarioa helburu jakin batzuk betetzeari lotzen zaio. Gobernu Kontseiluak programa-kontratua onartu du Unibasqen plan estrategikoarekin bat etorritik. Urtean behin Unibasqek informazioa eskaintzen du egindako gastuen berri emateko, eta alde aurretik aipatutako helburuak zenbateraino bete diren jakinarazteko. Batzordeak ikuspegi hori aintzat hartzen du, batetik, Agentziari epe ertainera planifikatzen laguntzen diolako, eta, bestetik, gobernuaren urteko aurrekontuen mendetasuna murrizten duelako.

Batzordearen bisitaldian zehar, Unibasq eta Eusko Jaurlaritza 4 urteko kontratu hori negoziatzen ari ziren. Unibasqek adierazi zuenez, Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako urteko ekarpena igotzeko itxaropena zuen. Kontuan hartuta litekeena dela lan-karga handitzea, batez ere egiaztapena berritzeko prozedurak aplikatzearen ondorioz, eta litekeena dela, halaber, langile akademikoen jarduna ebaluatzeko deialdi berri bat egitea, batzordeak uste du datozen urteetan behar-beharrezkoa izango dela aurrekontua igotzea. Izan ere, igoera hori beharrezkoa da, halaber, egungo aurrekontuarekin ezinezkoa delako sistema aztertzen eta nazioarteko jardueretan parte hartzen eman beharreko denbora ematea.

Batzordeak Unibasqi diru-sarrerak dibertsifikatzeko gomendatzen dio, Eusko Jaurlaritzaren mendetasuna murrizteko aukera izan dezan. Euskaditik kanpoko unibertsitateei zerbitzuak eskaintzea izan liteke aukera egoki bat. Balear Uharteetako Unibertsitateko doktorego ondoko bi lanposturen eskaeren ebaluazioa lehen urratsa da norabide horretan. Agentziak Euskadiko jardura-eremua ere zabaltzeko asmoa dauka, esaterako, zentro teknologikoei ebaluazio-zerbitzuak eskainiz, eta batzordeak babesa eman nahi die ekimen horiei guztiei.

Aurrekontuaren erdia, gutxi gorabehera, langileengan inbertitzen da. Une honetan Agentziak 10 langile dauka zuzendaria, zuzendari ondokoa eta mugagabeko kontratuarekin diharduten zortzi langile. Horietatik bost teknikari espezializatuak dira, eta hiru administrari laguntzaileak. Langile finkoek egonkortasuna izan dute azken urteetan, aurrekontu orokorra murriztu bada ere. Batzordeak uste du Unibasqeko langileak motibatuta daudela eta profesionalak direla. Unibertsitateko ordezkariak uste dute Unibasqekin dauzkaten kontaktuak kalitatezkoak direla eta Unibasqek zerbitzu egokia eskaintzen duela. Batzordeetako kideek langile horien babesa sentitzen dute.

Instalazioak egokiak dira, langileek beren erantzukizunak ongi bete ahal izateko modukoak. Nolanahi ere, kontuan hartuta lan-karga eta beraz langile kopurua igotzea aurreikusten dela, egungo instalazioak txikiegiak dira, eta Agentzia beste bulego zabalago batera joateko aukera aztertzen ari da.

Gomendioak

- Unibasqek bere diru-sarrera dibertsifikatzen ahalegindu behar du, Eusko Jaurlaritzaren finantziazioaren mendetasuna murrizteko.

Ondorioa

Batzordeak ondorioztatzen du Unibasqek ESG 3.4 neurri handi batean betetzen duela, eta, beraz, ENQAren 3. irizpidea neurri handi batean betetzen duela.

4.4 ENQAREN 4. IRIZPIDEA / ESG 3.5: MISIOAREN DEKLARAZIOA

IRIZPIDEA:

Agentziek xede eta helburu argi eta esplizituak izan behar dituzte beren lanerako, eta hain zuzen ere misio-deklarazio batean jasota egon behar dute, jendearentzat eskuragarri egongo dena.

JARRABIDEAK:

Deklarazio horretan honako hauek deskribatu behar dira: kalitate-bermeko agentzien prozesuen xede eta helburuak, lana banatzeko modua goi-mailako hezkuntzan inplikaturako agenteekin (berezi goi-mailako hezkuntzako erakundeekin) eta agentzien lanaren testuinguru kultural eta historikoa. Deklarazioan argi geratu behar du kalitatearen kanpo-bermeko prozesuak agentziaren jardura nagusietariko batzuk direla eta xede eta helburuak lortzeko badagoela planteamendu sistematiko bat.

Bestalde, deklarazio hori politikan eta kudeaketa-plan esplizitu batean islatzen dela frogatzen duen dokumentazioa ere egon behar du.

Batzordearen oharrak

Unibasqen eginkizuna honako hau da: "Euskal unibertsitate-sistema hobetzen laguntzea, sistemaren kalitatea sustatuz, eta goi-hezkuntzan inplikaturako interes-taldeak kontuan hartuz". Agentziaren eginkizuna adieraztearekin batera, Agentziako langileen eta Agentziarekin elkarlanean diharduten pertsona guztien jarduna gidatu behar duten ikuspegia, balioak eta etika garatu dira.

Agentziaren lau urterako plan estrategikoan dago jasota eginkizuna. Plan hori webgunean jaso da, eta Unibasqeko Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2013ko otsailaren 28an, Aholku Batzordearen proposamenari jarraiki. Plan estrategikoaren garapenean interesaturako alderdiek Aholku Batzordean parte hartzeko aukera dute. 3 euskal unibertsitateek ordezkariak dute Gobernu Kontseiluan, eta organo horren bitartez parte hartzen dute.

Agentziaren plan estrategikoak 6 ardatz estrategiko biltzen ditu, eta Agentziak garatuko ditu datozen lau urteetarako ezarritako eginkizuna betetzeko:

- 1. ardatza: Kudeaketa eta antolamendua
- 2. ardatza: Pertsonak
- 3. ardatza: Ebaluazioa
- 4. ardatza: Lankidetzak
- 5. ardatza: Komunikazioa
- 6. ardatza: Ikasleak

Urtero urteko kudeaketa-plana eta urteko aurrekontua argitaratzen dira, plan estrategikoan oinarrituta.

Agentziak epe ertainean nora joan nahi duen zehaztu beharrean, plan estrategikoan helburu argi eta praktikoa bildu dira, baita garapen-itxaropenak ere. Batzordearen iritziz, lotura argiago bat ezarri beharko litzateke eginkizun eta ikuspegiaren eta plan estrategikoaren artean.

Gomendioak

- Unibasqek deklarazio formal bat egin beharko luke, batetik, epe ertainerako asmoak adierazteko, eta, bestetik, nora joan nahi duen argiago azaltzeko.

Ondorioa

Batzordeak ondorioztatzen du Unibasqek ESG 3.5 oso-osorik betetzen duela, eta, beraz, ENQAREN 4. irizpidea oso-osorik betetzen duela.

4.5 ENQaren 5. irizpidea / ESG 3.6: Independentzia

IRIZPIDEA:

Agentziek independenteak izan behar dute, hain zuzen ere beren funtzionamenduari dagokionez erantzukizun autonomia izanez eta hirugarrenek (esaterako, goi-mailako hezkuntzako erakundeak, ministerioak edo inplikaturako bestelako agenteak) agentzia horien txostenetako ondorio eta gomendioetan eraginik izan gabe.

JARRABIDEAK:

Agentziek beren independentzia honelako neurriekin frogatu beharko dute:

- Goi-mailako hezkuntzaren erakundeekiko eta gobernuekiko funtzionamendu-independentzia dutela dokumentazio ofizialean (adibidez, gobernu-tresnak edo legegintza-aktak) bermatua.
- Agentzien prozeduren eta metodoen definizioa eta funtzionamendua, kanpo-ebaluatzaileen aukeraketa eta izendapena eta kalitate-bermeko prozesuen emaitzen zehaztapena modu autonomo eta independentean egiten da gobernuekiko nahiz goi-mailako erakundeekiko eta eragin politikoa duten organoekiko.
- Goi-mailako hezkuntzan inplikaturako alderdiei, bereziki ikasleei kalitate-bermeko prozesuaren garapenean kontsultatzen bazaie ere kalitate-bermeko prozesuen azken emaitzen arduradunak agentziak dira.

Batzordearen oharra

2010ean, ENQari atxikitzeko eskaera egiteko autoebaluazio-txostena egin aurretik, autoebaluazio-azterketa bat egin zen, ESGak betetzeko Unibertsitatearen antolamenduan eta funtzionamenduan zer aldatu behar zen ikusteko. Une horretan ikusi zen Agentziaren erregulazioa egokitu beharra zegoela, Agentziari independentzia emateko eta bere jardunaren erantzukizun osoa emateko. Horretarako onartu zen 13/2012 Legea, Unibertsitatearen existentzia eta funtzionamendua arautzen duena. Lege horrek eta estatutu berriek Agentziaren independentzia bermatzen dute, Lege horretatik ateratako zenbait paragrafoetan ikus daitezkeenez:

- Sarreran: "(...) argi eta garbi eta bere kabuz definitu behar du bere zeregina, eta behar beste giza baliabide nahiz baliabide material izango ditu zeregin hori betetzeko. Zeregin hori gobernu- eta unibertsitate-agintarieratik aparte egin behar da, prozedura eta irizpide objektibo, publiko eta nazioartean parekatzeko modukoekin bat etorriz".

- 1. artikuluan: "... berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa izango ditu, bai eta bere eginkizunak betetzeko berezko ondarea ere, lege honetan ezarritakoarekin bat etorriz."

- 4.2 artikuluan: "Agentziak, ebaluazio-, egiaztapen- eta ziurtapen-jarduerak betetzean, independentzia eta objektibotasun osoz jardun behar du".

- 4.4. artikuluan: "Ebaluazio-batzordeek independentzia osoz jardun behar dute eta ebaluazioaren emaitzak ezin ditu agentziaren beste ezein organok aldatu".

- 6.6 artikuluan: "Agentziako organoetako kideek beren izenean jarduten dute, beren irizpidearekin, ez beren kolektiboaren ordezkari gisa."

Ebaluazio-, akreditazio- eta ziurtapen-prozesuak garatzeko prozedurek (adituak hautatzekoak barne) bermatzen dute independentzia. Gainera, Agentziaren Estatutuen funtsezko puntuetako bat da, Estatutuen arabera independentzia oinarritzeko balioa delako. Unibertsitatearen kode etikorekin 8. artikuluan ere nabarmentzen da independentzia.

Unibertsitatearen funtzionamendu-independentzia bere organo teknikoaren (Aholku Batzordea eta Ebaluazio Batzordeak) jarduteko independentzian oinarritzen da. Ebaluazio-programaren prozedura eta metodoak zehaztea eta kanpo-adituak izendatzea zuzendariaren erantzukizunak dira, Aholku Batzordeak alde aurretik gomendatuta, eta Aholku Batzordeko kide gehienak euskal unibertsitate-sistematik kanpotik datoz. Agentziako organo zientifiko-teknikoetako kide izatea bateraezina da ebaluatua izan litekeen edozein erakundetan pertsona bakarreko zuzendari-

kargu bat edukitzearekin. Banako ebaluazio bakoitzaren emaitza Ebaluazio Batzordearen erantzukizuna da. Erantzukizunak banatzeak independentzia bermatzen du ebaluazioari, akreditazioari eta ziurtapenari buruzko erabakiak hartzean. Programa bakoitzeko aditu eta ebaluazio-batzordeak hautatzeko, Unibasqen estatutuetan ezarritako betekizun publikoak eta irizpide argiak aplikatzen dira, Unibasqen webguneko adituak hautatzeko protokoloari jarraiki. Aholku Batzordeak Ebaluazio Batzorde bakoitzaren hautagaiak ebaluatzen ditu. Behin hautaketa egin ondoren, Aholku Batzordeak hautagai-zerrenda proposatzen dio zuzendariari, izendapena egin dezan. Aditu guztiek dokumentu bat sinatu behar dute, kode etikoa onartzeko, konfidentzialtasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko, eta interes-gatazkarik ez dagoela ziurtatzeko. Ebaluazio-programa guztietan, Ebaluazio Batzordearen erabakia loteslea da, eta Agentziaren zuzendariari helarazten zaio berak jakinaraz dezan.

Interes-taldeekin egindako bileretan oinarrituta batzordeak uste du Agentziak lotura sendoak dituela, bai Gobernuarekin, bai Euskadiko goi-mailako hezkuntzako erakundeekin. Gobernuak ordezkaritza du Gobernu Kontseiluan, ia eragiketa guztiak finantzatzen ditu, eta urte anitzeko kontratu baten gaineko erabakiak hartzen ditu autonomia-erkidegoko Gobernuaren eta Agentziaren arteko eginkizun eta baliabideen loturak arautzeko. Unibasqek bere protokoloak definitzeko ardura hartzen badu ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar ditu, legeko balioa izan dezaten.

Hiru euskal unibertsitateek ordezkaritza dute Gobernu Kontseiluan, eta horregatik, langileen eta goi-mailako hezkuntzako erakundeen arteko elkarrenergina ohikoa da. Alabaina, batzordeak uste osoa du legean, Agentziaren Estatutuetan eta haren prozeduretan aipatutako bermeek bermatu egiten dutela Unibasqek erantzukizun autonomoa duela bere funtzionamenduan, eta txostenetan jasotako ondorio eta gomendioetan hirugarren alderdiek (goi-mailako hezkuntzako erakundeak, ministerioak edo bestelako interes-taldeak) ezin dezaketela inolako eraginik izan. Gobernu Kontseiluaren osaerak bermatzen du interesdun guztien arteko oreka. Aditu nazional eta nazioarteko independenteek osatzen dute Aholku Batzordea, prozedurak zehazteko ardura duen organoa. Langileak komunikazioaz arduratzen dira, eta idatzizko komunikazio formalekin jarraitzen dute baldin eta galdera edo kexak aurkeztzen badira. Azkenik, Agentziako beste organo batek erabaki bat ere aldatzeko aukerarik ez izatea funtsezkoa da guretzat, erabakiak hartzeko independentzia bermatzeko.

Ondorioa

Batzordeak ondorioztatzen du Unibasqek ESG 3,6 oso-osorik betetzen duela, eta, beraz, ENQAREN 5. irizpidea oso-osorik betetzen duela.

4.6 ENQaren 6. irizpidea / ESG 3.7: Agentziek erabilitako kalitatearen barne-bermeko irizpideak eta prozesuak

IRIZPIDEA:

Agentziek erabilitako prozesuak, irizpideak eta prozedurak aurretiaz zehaztu behar dira eta jendaurrean erabilgarriak izan behar dute.

Normalean, prozedurek honako hauek bildu beharko lituzkete:

- kalitate-bermeko prozesuaren subjektuak egindako autoebaluazioa edo prozedura baliokidea;
- ebaluatzaile-talde batek (egokia denean ikasle batekin edo gehiagorekin) egindako kanpo-ebaluazioa eta in situ bisitak agentziak erabakita;
- hartutako erabakiak, gomendioak edo bestelako emaitza formalak biltzen dituen txosten bat argitaratzea;
- kalitate-bermeko prozesuaren subjektuak gauzatutako ekintzak berrikusteko jarraipen-prozedura betiere txostenean bildutako gomendioei jarraiki.

JARRABIDEAK:

Agentziek bestelako prozesuak edo prozedurak gara edo erabil ditzakete asmo zehatzetarako.

Agentziek deklaraturako printzipioei arreta handia jarri behar diete une oro eta era berean, ziurtatu behar dute baldintzak eta prozesua bera modu profesionalean kudeatzen direla eta ateratako ondorioak eta hartutako erabakiak prozesuaren araberrakoak direla baita erabakiak talde desberdinek hartutakoak badira ere.

Kalitate-bermeko erabaki formalak edo ondorio formalak dituzten erabakiak hartzen dituzten agentziek apelazio-prozedurak izan behar dituzte. Apelazio-prozedura horien izaera eta moldea agentzia bakoitzaren eraketaren arabera zehaztu behar dira.

Batzordearen oharrak

Unibasqek aplikaturako irizpide eta prozedurak Agentziak berak zehazten ditu beti, eta Agentziaren webgunean argitaratu behar dira ebaluazio bakoitzaren aurretik. Ebaluazio-prozedura eta -irizpideak ezartzeko, Unibasqek Unibasqen lege-esparrua hartzen du aintzat, baita Espainiako eta Euskadiko nahitaezko araudia ere. Prozedurak lantzea (zirriborroak) Agentziako langileen ardura izaten da beti, eta jarraian Aholku Batzordeak onartu edo aldatzen ditu. Programaren dokumentazioa behar bezala zabaltzeko, Agentziak bere webgunean argitaratzen du haren edukia, eta gainera prestakuntza-ikastaro eta informazio-bilerak antolatzen ditu unibertsitate eta eskatzaileekin.

Unibasqek zenbait prozeduratan autoebaluazioa sartzen badu ere, batzordeak uste du autoebaluazio-txostenak deskribatzaile samarrak direla. Batzordeak onartzen du Unibasqek ikuspegi autokritikoa sustatzen duela, baina gomendatzen du, aldi berean, programa eta erakundeek indarrak eta ahuleziak aztertzei garrantzi handiagoa emateko aurkeztutako autoebaluazio-txostenetan. Batzordeak begi onez ikusten ditu, halaber, egiaztapena berritzeko prozeduretan autoebaluazio-prozesua errazteko hartutako ekimenak, laster aplikatuko direnak. Batzordearen ustez, autoebaluazio-prozesu kritikoak balioa eransten dio kalitatea kontrolatzeko kanpo-prozesu osoari, erakunde baten indar eta ahuleziez jabetzea funtsezkoa delako kalitatea hobetzeko.

Aldez aurretik adierazi dugunez, batzordeak uste du bisitaldiak garrantzitsuak direla kalitatearen kanpo-kontrola bermatzeko. Unibasqek bisitaldiak antolatzen ditu AUDIT eta DOCENTIA ziurtatzeko fasean, eta laster antolatuko ditu berriz, ikasketaprogramen egiaztapena berritzeko prozesuan. Alabaina, batzordeak iradokitzen du berraztertzea bisitaldi horiek baliagarriak izan ote daitezkeen, halaber, AUDIT eta DOCENTIA programetako beste urrats batzuetan eta Unibasqek aplikaturako bestelako kalitate-prozeduretan.

Batzordeak programa eta erakundeen prozedurak aztertu ditu, behin behineko txostenei buruzko komentarioak eman ahal izateko. Goi-mailako erakundeetako

ebaluazio- eta ikasketa-programen kasuan, Ebaluazio Batzordeak alde zuzeneko txostenak ematen ditu eta interesdunari jakinarazten dio. Jarraian, txostenak jasotakoari buruzko ohar eta komentarioak aurkezteko epea hasten da. Azkenik, txostenak berrikusten da egokitzat jotzen diren oharak kontuan hartuta, eta behin betiko txostenak ematen da. Alabaina, batzordeak uste du prozedura hori gardenagoa eta formalagoa izan beharko litzatekeela, ebaluazio-batzordearen eta bigarren mailako hezkuntzako erakundearen arteko elkarreragina bete-betean ulertzeko, eta aplikatutako arauen helburuari dagokionez inolako anbiguetaterik ez dagoela ziurtatzeko.

Banako jarduna ebaluatzen duten ebaluazio-programetan soilik ezartzen dira apelazio-prozedurak. Unibasqek badaki gainerako ebaluazio-programetan errekurso-prozedura argiagoak sortu behar dituela.

Txostenak egiteari buruzko ESG 2.5ean adierazi dugunez, Eusko Jaurlaritzak eta inplikaturako goi-mailako irakaskuntzako erakundeek Unibasqen txostenak hartzen dituzte aintzat. Nolanahi ere, berrikusitako txosten gehienetan batzordeak ikusi du ondorioak ongi justifikatu gabe daudela. Gogora dezagun txostenak argitaratzen direla AUDIT eta DOCENTIA ikasketa-programen jarraipen-prozeduren esparruan.

Jarraipenari buruzko ESG 2.6an adierazi dugunez, batzordeak egokitzat jotzen ditu Unibasqek aplikatutako jarraipen-prozedurak.

Unibasqek ez du oraindik apelazio-prozedura formalik ezarri, banako jarduna ebaluatzen duten ebaluazio-programetarako izan ezik. Gaur egun apelazio-batzorde bat sortzeko aukera aztertzen ari dira.

Gomendioak

- Unibasqek gehiago bultzatu behar du programa eta erakundeek beren indargune eta ahuleziak aztertzea aurkeztutako autoebaluazio-txostenetan.
- Unibasqek berraztertzea beharko luke bisitaldiak baliagarriak izan ote daitezkeen, halaber, AUDIT eta DOCENTIA programen beste etapa batzuetan eta beste kalitate-prozedura batzuetan.
- Unibasqek alde zuzeneko txostenari buruzko komentarioak egiteko prozedurak argitu behar ditu, eta apelazio-prozedura formalak ezarri behar ditu.
- Unibasqek argiago sartu behar ditu bere txostenetan ondorioak ateratzeko lagungarri izan daitezkeen funtsezko ohar guztiak.

Ondorioa

Batzordeak ondorioztatzen du Unibasqek ESG 3.7 neurri handi batean betetzen duela, eta beraz, ENQaren 6. irizpidea neurri handi batean betetzen duela.

4.7 ENQaren 7. irizpidea / ESG 3.8: Erantzukizun-prozedurak

IRIZPIDEA:

Agentziek beren kontu-emate propiorako prozedurak izan behar dituzte.

JARRABIDEAK:

Prozedura horiek honako hauek bildu behar dituzte:

1. Kalitate-bermeko politika, publiko egindakoa eta webgunean eskuragarri dagoena;
2. Ondokoak frogatzen dituen dokumentazioa:
 - agentziaren prozesuek eta emaitzek kalitate-bermearekiko misioa eta helburuak islatzen dituztela;
 - agentziak interes-gatazkarik ez izateko mekanismo bat duela eta betearazten duela bere kanpo-ebaluatzaileen lanean;
 - agentziak azpikontratatistak landutako jardueren eta materialen kalitatea ziurtatzen duten mekanismo fidagarriak dituela, betiere kalitate-bermeko prozeduraren elementu bat edo denak beste alderdi batzuei azpikontratatzeko zaizkien kasuan;
 - agentziaren kalitate-bermeko prozedurek honako hauek biltzen dituzte: barne-atzeraelikadurako mekanismo bat (adibidez, langile propioetatik edo zuzendaritza-kontseilu edo -batzarretik atzeraelikadura lortzeko baliabideak), barne-gogoetako mekanismo bat (adibidez, barne- eta kanpo-hobekuntzetarako gomendioei erantzuteko baliabideak) eta kanpoatzeraelikadurako mekanismo bat (adibidez, etorkizuneko jardunetarako ebaluatzaileetatik eta berrikusitako erakundeetatik atzeraelikadura lortzeko baliabideak); horiek guztiak betiere informatzeko eta agentziaren garapenari eta hobekuntzari eusteko xedearekin.
3. Agentziaren jardueri buruzko kanpo-berrikuspen zikliko eta nahitaezkoa, gutxienez bost urtean behin.

Batzordearen oharrak

Unibasqek bere barne-jardueren kalitatea bermatzeko zenbait prozesu jarri ditu abian. Unibasquen kalitatearen barne politikan adierazi da prozesu horien filosofia, eta Unibasqen webgunean dago eskuragarri. Gainera, Unibasqen Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema kalitateari eta prozedurei buruzko eskuliburuan zehaztu da, Planifikatzea-Egitea-Egiaztatzea-Jardutea (PDCA, ingelesezko siglen arabera) etengabe hobetzeko zikloan oinarrituta.

Agentziaren prozesu eta emaitzek haren eginkizuna eta kalitatea bermatzeko helburuak ematen dituzte aditzera. Batzordea interes-talde guztiekin bildu da, eta bilera horietatik ondorioztatu du, batetik, Unibasqen jarduna bat datorrela Euskadin goi-mailako hezkuntzaren kalitatea bultzatzeko hartu duen konpromisoarekin, eta, bestetik, Unibasq helburu hori lortzeko garrantzizko agentetzat jotzen dutela.

Adituak hautatzen dira Unibasqek adituak hautatzeko ezarritako protokoloari jarraiki. Unibasqek kode etiko bat ere badu, gerta daitezkeen interes-gatazkei buruzko xedapenak barne. Aditu guztiek deklarazio bat sinatu behar dute "kode etikoa onartzen dutela eta konfidentzialtasuna, inpartzialtasuna eta interes-gatazkarik ez dagoela adierazteko", eta, ildo horretan, Agentziak esleitutako zeregina garatzean sor litekeen edozein interes-gatazka jakinarazteko konpromisoa hartu dute.

Agentziak kontratatzen ditu adituak, eta beraz Unibasqek ez ditu ebaluazio-kontratuak azpikontratatzeko. Unibasqek oso-osorik bete behar du Espainian eta Euskadin administrazio publikoari aplikatu beharreko indarreko legeria. Zehazki, azpikontratazioari dagokionez, sektore publikoaren kontratuak arautzen dituen legea bete behar du Agentziak. Horregatik, hornitzaileak hautatzeko eta haien jarduna gainbegiratzeko prozedura jarri du abian Unibasqek. Hornitzaileen prozedura barne-dokumentu bat da, Unibasqeko langileek erabiltzen dutena.

Aldez aurretik adierazi dugunez, Unibasqek Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema bat jarri du abian, PDCA zikloan oinarrituta. Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema horren barruan etengabe hobetzeko prozesua hartu da, barneko berrelikadura-mekanismoak, barne-gogoetako mekanismoak eta kanpoko berrelikadura-mekanismoak barne, eta, bitarteko horiei guztiei esker, Agentziaren jardunari eta hobetzeko aukerei buruzko informazioa jasotzeko aukera dago. Langileen jarduna urtero ebaluatzen da, langile bakoitzaren lanari etengabe hobetzeko irizpideak aplikatu ahal izateko. Teknikariek aditu bakoitzaren jarduna ebaluatzen dute formalki, eta adituei ebaluazio-prozesua ebaluatzeko eskatzen diete. 2013an, prozesu formalizatu bat jarri zen abian prozesu horretan parte hartzen dutenen gogobetetzea gainbegiratzeko. Unibasqek goi-mailako hezkuntzako erakundeekin bilera informalak egiten ditu, informazioa jasotzeko. Ikasleen Aholku Batzorde sortu berriak aukera emango du ikasleak Unibasqen zereginean modu aktiboagoan inplikatzeko. Batzordeak aintzat hartzen ditu Unibasqek abian jarritako berrelikadura-mekanismoak, baina aldi berean iradokitzen dio (ESG 2.2an adierazi denez) ebaluazio-programen garapen fasean interesa duten alderdiek parte-hartze handiagoa eduki beharko luketela, Aholku Batzordeko kideek soilik parte hartzen dutelako fase horretan.

Unibasqek bost urtean behin kanpo-ebaluazio baten eraginpean jartzeko konpromisoa hartzen du. Agentzia arautzen duen Legeak ezarri du lege-betekizun formal hori (5.5 artikulua: "Agentziari, bost urtean behin, nazioarteko adituen parte-hartzea izango duen kanpo-ebaluazio bat egingo zaio"). Aurreikustekoa da azkenean aldian behingo kanpo-ebaluazio hori ENQAren arauekin bat etorriz egitea, behin Unibasq ENQAko kide egin ondoren.

Ondorioa

Batzordeak ondorioztatzen du Unibasqek ESG 3.8 oso-osorik betetzen duela, eta beraz, ENQAren 7. irizpidea oso-osorik betetzen duela.

4.8 ENQAren 8. irizpidea: Iritzien koherentzia, apelazio-sistema eta ENQAren helburuei egindako ekarpena

IRIZPIDEA:

- i. Agentziak bere aitortutako printzipioei jaramon berezia egiten die edozein unetan, eta bere betebeharrak eta bere prozesuak era profesionalen kudeatzen direla eta bere epaiak eta erabakiak modu sendoan hartzen direla ziurtatzen du, nahiz eta epaiak batzorde ezberdinek lortzen dituzten.
- ii. Agentziak erabaki formalak edo ondorio formalak dituzten erabakietara heltzen bada, apelazio-prozedura izan beharko luke. Apelazio-prozeduraren izaera eta era agentziaren konstituzio izaeraren arabera zehaztu beharko litzateke.
- iii. Agentziak ENQAko helburuak betetzeko era aktiboan lagundu nahi du.

Zenbait interes-talderekin izandako elkarrizketen eta jasotako dokumentazioaren arabera, batzordea konbentziturata dago Unibasqek arreta berezia eskaintzen diela euskal unibertsitate-sistemaren kalitatea hobetzeari eta kalitate-kultura bat garatzeari. Unibasqek bermatzen du, batetik, betekizun eta prozesuak profesionaltasunez aplikatzen dituela, eta, bestetik, oharrak eta erabakiak koherentziaz egiten dituela. Ebaluazio-batzordeek garrantzizko zeregina betetzen dute ohar horien koherentzia bermatzeko.

ESG 3.7an alde aurretik adierazi dugunez, batzordeak aztertu ditu, halaber, programa eta erakundeei apelatzeko aukera ematen dieten prozedurak. Banako jarduna ebaluatzen duten ebaluazio-programetarako soilik ezartzen dira apelazio-prozedurak. Unibasqek badaki gainerako ebaluazio-programetarako errekurtsio-prozedura argiagoak eduki beharko lituzkeela. Batzordeak uste du batzorde bat sortu beharko litzatekeela apelazioen ardura hartzeko.

Beste behin ere batzordeak azpimarratu du interesdun guztiek Unibasqi erabateko babesa eskaini diotela ENQAko eskubide osoko kide izan dadin, Goi-mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan Agentziaren erabateko parte-hartzea ziurtatzeko urrats garrantzitsutzat jotzen duten heinean. Izan ere, Espainiako legeriak ezartzen du ENQAr atxikitzea ezinbesteko baldintza dela zenbait ebaluazio-programaren erantzukizun osoa hartzeko, unibertsitate-programen egiaztapena berritzeko programaren erantzukizun osoa hartzeko adibidez. Gainera, Unibasqek European gehiago jarduteko asmoa dauka. Bisitaldian zehar, batzordeak ikusi zuen finantza-baliabideak eta langileek zeregin horietara eskaintzen duten denbora urriak direla. Unibasqek espero du Eusko Jaurlaritzarekin sinatu berri duen urte anitzeko kontratutik baliabide gehiago jasotzea, eta, horri esker, European gehiago jarduteko aukera izatea.

Gomendioak

- Unibasqek apelazio-prozedura formalak ezarri behar ditu.
- Unibasqek baliabide egokiak eduki behar ditu ENQAn zeregin aktiboa eduki ahal izateko.

Ondorioa

Batzordeak ondorioztatzen du Unibasqek ENQAren 8. irizpidea neurri handi batean betetzen duela.

5. Ondorioa eta garapena

Aztertutako dokumentuen eta ahozko frogen arabera, batzordeak uste du Unibasqek ez dituela *ENQAko kide izateko xedapen* guzti-guztiak betetzen, nahiz eta bere eginkizunak ongi betetzen dituen. Hala eta guztiz ere, batzordeak uste du xedapenak behar adina betetzen dituela Agentziak, eta horrenbestez ENQAko eskubide osoko kide izan daitekeela.

1., 3., 6. eta 8. irizpideak dira Agentziak guztiz bete ez dituenak. Agentziari gomendatzen diogu, ahal duen neurrian eta lehenbailehen, irizpide horiek oso-oso betetzeko beharrezko neurriak har ditzan.

6. Gomendioak

Batzordeak honako gomendio hauek egin nahi ditu Unibasqen zeregina oraindik areago hobetzeko:

- Unibasqek berriz aztertu behar du ikasleen ebaluazioa modu sistematikoagoan egin ote daitekeen ebaluazio-programa guztietan.
- Goi-mailako hezkuntzako erakundeek kalitatea bermatzeko barne-sistemak ESGren I. zatia bete behar du, eta Unibasqen nahitaezko ebaluazio-programek arreta handiagoa jarri beharko lukete horretan.
- Unibasqek pentsatu behar du zer egin interesdunek prozeduren garapenean parte-hartze handiagoa izateko Aholku Batzordeko ordezkariak gain.
- Unibasqek bere prozedurak berraztertu beharko lituzke, azterketa osoko eredia ebaluazio-programa gehiagori aplikatzeko.
- Unibasqek kontrolatzen jarraitu behar du autoebaluazio-txostenak autokritikoak izatea.
- Unibasqek DOCENTIA prozedurak berrikusi behar ditu, ebaluazio-programa horren administrazio-karga murrizteko Espainiako beste erakunde batzuekiko lankidetzaren bitartez.
- Unibasqek argiago sartu behar ditu bere txostenetan ondorioak ateratzeko lagungarri izan daitezkeen funtsezko ohar guztiak.
- Unibasqek pentsatu beharko luke zer egin bere txostenak irakur ditzaketenen kopurua handitzeko.
- Unibasqek kalitatea bermatzeko kanpo-prozesuen emaitzak erabili behar ditu euskal unibertsitate-sistema osoaren azterketa oinarritzeko.
- Unibasqek bere diru-sarrerak dibertsifikatzen ahalegindu behar du, Eusko Jaurlaritzaren finantziarioaren mendetasuna murrizteko.
- Unibasqek epe ertainerako asmoak argiago zehaztu behar ditu, baita norantz joan nahi duen ere.
- Unibasqek sustatu behar du autoebaluazio-txostenetan programa eta erakundeek indargune eta ahuleziak aztertzea.
- Unibasqek berraztertu beharko luke bisitaldiak baliagarriak izan ote daitezkeen, halaber, AUDIT eta DOCENTIA programen beste etapa batzuetan eta beste kalitate-prozedura batzuetan.
- Unibasqek alde zuzeneko txostenei buruzko komentarioak egiteko prozedurak argiago zehaztu behar ditu, eta apelazio-prozedura formalak ezarri behar ditu.
- Unibasqek ENQAn zeregin aktiboa betetzeko beharrezko baliabideak eduki behar ditu.

7. Eranskinak

7.1. Eranskina – Bisita agenda

2014ko otsailaren 12a, astezkena

16:00 – 19:00 Ebaluazio batzordearen bilera

19:00 – 19:45 Unibasqen zuzendaritzarekiko elkarrizketa

- Juan Andres Legarreta – Zuzendaria
- José Manuel Valle – Zuzendari ondokoa
- Eva Fernández de Labastida – Ebaluazio arduraduna

2014ko otsailaren 13a, osteguna

9:00 – 9:30 Eusko Jaurlaritzaren ordezkarietako elkarrizketa

- Itziar Alkorta – Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordea
- Francisco J. Alonso – Unibertsitate Zuzendaria

9:30 – 9:40 Atsedena

9:40 – 10:30 Gobernu Kontseiluaren ordezkarietako elkarrizketa

- Ma Paz Espinosa – Gobernu Kontseiluaren Idazkaria
- Óscar Altuzarra – Gobernu Kontseiluaren kidea
- Aratz Castro – Gobernu Kontseiluaren kidea (ikaslea)
- Guy Haug - Gobernu Kontseiluaren kidea
- Juan Andres Legarreta – Unibasqeko zuzendaria

10:40 – 11:30 Aholku Batzordearen ordezkarietako elkarrizketa

- Jörn Grunewald – Aholku Batzordearen kidea
- Perla Cohen – Aholku Batzordearen kidea
- Paz Francés – Aholku Batzordearen kidea (kidea)
- Néstor Torres - Aholku Batzordearen kidea

11:30 – 11:50 Kafea

11:50 – 12:30 Hiru unibertsitateetako errektoreetako elkarrizketa

- Iosu Zabala - Mondragon Unibertsitatea errektorea
- Iñaki Goirizelaia - UPV/EHU-ko errektorea
- José María Guibert – Deustuko Unibertsitateko errektorea

13:30 – 14:20 Unibertsitateetako kalitate unitate teknikoetako ordezkarietako elkarrizketa

- Jon Altuna (Mondragon Unibertsitatea)
- Miren Murgiondo (Mondragon Unibertsitatea)
- Nekane Balluerka (UPV/EHU)
- Amaya Zarraga (UPV/EHU)
- Maria Jesús Pando (Deustuko Unibertsitatea)
- Begoña Arrieta (Deustuko Unibertsitatea)

14:20 – 14:30 Atsedena

14:30 – 15:20 Titulazioak Ebaluatzeko Batzordearen ordezkarietako elkarrizketa

- Julio Abalde – Titulazioak Ebaluatzeko Batzordearen batzordeburua
- Luis Basañez – Titulazioak Ebaluatzeko Batzordearen kidea
- Bruno Camus – Titulazioak Ebaluatzeko Batzordearen kidea
- Inmaculada Ortiz – Titulazioak Ebaluatzeko Batzordearen kidea
- Unai Martínez – Titulazioak Ebaluatzeko Batzordearen kidea (ikaslea)

15:30 – 16:20 AUDIT Batzordearekiko elkarrizketa (Erakundeen ebaluazioa)

- Javier Monforte – AUDIT Batzordearen kidea
- Emilio Diez de Castro – AUDIT Batzordearen batzordeburua
- José Luis Casillas – AUDIT Batzordearen kidea
- Carmen Navarro – AUDIT Batzordearen kidea

16:20 – 17:00 Kafea eta barne bilera

17:00 – 18:00 Unibasqeko langileetako bilera

- Eva Fernández de Labastida
- Idoia Collado
- Naiara Martínez

- Tamara Cantrabrana (Etika batzordea)
- Miriam Martínez (Kalitate batzordea)

20:00 Afaria

2014ko otsailaren 14a, ostirala

9:00 – 10:00 Beste ebaluazio batzordeetako ordezkarietako elkarrizketa (Irakasle eta ikertzaileen egiaztapenerako eta Ikerkuntza jardueretarako)

- Iciar Astiasaran – Irakasle eta ikertzaileen egiaztapenerako Osasun eta Medikuntza Zientzietako Batzordearen kidea
- Manuel Vijande – Irakasle eta ikertzaileen egiaztapenerako Osasun eta Medikuntza Zientzietako Batzordearen batzordeburua
- Manuel de León – Irakasle eta ikertzaileen egiaztapenerako Zientzia Esperimentaletako Batzordearen batzordeburua
- Enrique Amezua Ochoa – Ikerkuntza jardueretako batzordearen kidea
- Begoña Ochoa – Ikerkuntza jardueretako batzordearen kidea

10:00 – 12:45 Batzordearen barne bilera

12:45 – 13:15 Agentziaren zuzendaritzarekin azken bilera

- Juan Andres Legarreta – Zuzendaria
- José Manuel Valle – Zuzendari ondokoa
- Eva Fernández de Labastida – Ebaluazio arduraduna

13:15 – 15:00 Ondorioak ateratzeko eta txostenaren ildo nagusiak erabakitzeko Ebaluazio batzordearen azken bilera (Bazkaria)

15:00 – 15:15 Batzordearen aurkezpena Zuzendaritza eta langilentzat

7.2. Eranskina – Frogagiriak

Batzordeak autoebaluazio-txostenaz gain ESGen eta ENQAko kide izateko irizpideen betetze-mailari buruzko ondorioetara heltzeko behar adina ebidentzia jaso zuen. Aldez aurretik hurrengo dokumentuak jaso zituen:

1. 13/2012 Legea, ekainaren 28koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa (web)
2. 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (web)
3. Hitzarmenak erakundeekin
4. Kontabilitate analitikoko txostenak
5. Urteko jarduera memoria (web)
6. Urteko auditoria (web)
7. Urteko kudeaketa plana (web)
8. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu orokorra (web)
9. Etika kodea (web)
10. 204/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren estatutuak onartzen dituena (web)
11. AUDIT jardunaldiari buruzko dokumentazioa (web)
12. DOCENTIA jardunaldiari buruzko dokumentazioa (web)
13. Langile akademikoen ebaluazio programen dokumentazioa (Gidak, eta gainontzeko informazioa) (web)
14. Erakundeen ebaluazio programen dokumentazioa (Gidak, txantiloiak eta gainontzeko informazioa) (web)
 - AUDIT programaren dokumentazioa
 - DOCENTIA programaren dokumentazioa
15. Titulazioen ebaluazio programen dokumentazioa (Gidak, txantiloiak eta gainontzeko informazioa) (web)
 - Tituluen jarraipenerako programaren dokumentazioa
16. Ebaluazio txostenak (web)
17. Egoitzaren mapa
18. Unibasq Simposioen dokumentazioa (web)
19. Barne Kalitate Politika (web)
20. SIIU diseinuaren lankidetzan egindako lanaren barne dokumentuak
21. 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, kontratu publikoak arautzen duena
22. Zerbitzuen karta (web)
23. Ebaluazio batzordeen zerrendak (web)
24. Ebaluazio Batzordeen bileren aktak
25. Aholku Batzordearen bileren aktak
26. Gobernu Kontseiluaren bileren aktak
27. Unibertsitateekin egindako bileren aktak
28. Ebaluazio Batzordeen presidenteeekin egindako bileren aktak
29. Aurrekontuaren hilabeteko jarraipen txostena
30. Antolamendu-egitura (web)
31. Prozesuen mapa (web)
32. Unibasq-eko ebaluatzaileak hautatzeko protokoloa eta I. Eranskina. Unibasq agentziako ebaluatzaileak hautatzeko baldintzak (web)
33. Espainako Unibertsitateen kanpo kalitate ebaluazioaren egoerari buruzko txostena (ICU) (web)
34. 1393/2007 Errege Dekretua, urriaren 29koa, unibertsitateko irakaskuntza ofizialen ordenamendua ezartzen duena (web)
35. 861/2010 Errege Dekretua, uztailaren 2koa, unibertsitateko irakaskuntza ofizialen ordenamendua ezartzen duen 1393/2007 Errege Dekretua aldatzen duena (web)
36. 99/2011 Errege Dekretua, urtarrilaren 28koa, doktorego irakaskuntza ofizialak arautzen dituena (web)
37. Plan estrategikoa (web)

Bisitan bertan ebaluazio batzordeak dokumentazio gehigarria jaso zuen, adibidez, Unibasqek garatutako ebaluazio programen ikuspegi globala islatzen zuen taula, finantza txostenak eta aurrekontu eguneratuak, ebaluazio txostenak eta ebaluazioarekin lotutako dokumentu gehigarriak, Euskal Unibertsitate Sistemaren ikasle eta irakasleei buruzko datuak eta agentziaren langileen lan-kargari buruzko informazioa.